


GUaiXe.net



**Zuhatzuko
maistraren etxean
konponketak**



Sakanerria >> 7

**Etxeberriko frontoia festetarako
estalita egotea nahi dute.
Kontzejuak maiatza akaberarako
eman nahi ditu lanak**



Sakanerria >> 7



**Ama-Lurra
azoka
igandean
Etxarri
Aranatzen**

25 abeltzain
eta nekazari-
ren postuak,
musika, herri
kirolak,
ganadu feria
eta beste

>> 8



**Iturmendi
San Migel
festak
ospatzeko
prest**

Gazte
Asanbladaren
egitarauarekin
hasiko da festa
gaur. Bihar
egun handia

>> 8



**Olaztiko
Maisuenea
gaztetxeak
19 urte
bete ditu**

Gaurko eta
biharko
egitaraua
prestatu du
Olaztiko Gazte
Asanbladak

>> 8



**Europa
ekialdeko
doinuak
udaberri
sasoirako**

Etxarri Ara-
nazko abesba-
tzak kontzer-
tua emanen du
igandean
herriko elizan

>> 13



**Musika
eta
bertsoa
bat
batean**

Oskar Estanga
eta konpainia
gaur Irurtzun-
go kultur etxe-
an, munduan
barnako bidaia
eskainiz

>> 3



**Antzerki
zikloa
hasteko
antzerkia
antzerki
barruan**

Larunbatean
Altsasun En lo
más crudo del
crudo invierno
antzezlan

>> 15



**Hamabost
bertsolari
neurtuko
dira bihar
Etxarrin**

Bertso Afari
Txapelketako
kanporaketak
tabernetan
dira eta finala
gaztetxean

>> 3

Bada non aukeratu



**Igor Flores San Juango
Duatloiko txapelduna**

>> 11

**III. Ama-Lurra
Azoka**

Hurbildu zaitez! Hurbildu zaitez!

**Igandea, maiatzak 11
Etxarri Aranatz**

Azoka 10.00etatik-14.00etara:
Nekazaritzako merkatu gardena 25 elikagai postuekin eta ganadu feria.
Eguerditik aurrera gainera: gaiteroak, gazta tailerra, euskal zerria errea
dastatzea, herri kirolak eta askoz gehiago...

Antolatzailea: Etxarri
Patroiztatzailea: Etxarri

ehne

Garaiko jakiak
ekoizlearen eskutik zuzenean

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Naroa
ZORIONAK etxeko printzesari zure hirugarren urtebetetzean. Etxeko guztien partez muxu haundi bat.



Lagun-Artea kimuak
Horrela jarraitzea espero dugu. ZORIONAK eta ESKERRIK ASKO. Entrenatzaileak.



Asier Galarza Zubiria
ZORIONAK potxolo!! 3 urte beteko dituzu!! Handitzen, handitzen... Muxu asko familiaren partez.



Olaztiko Gaztetxea
Maiatzak 10, Maisueneak 19!! ZORIONAK MAISUENEA! 19 urte bizirik!!!



Aitor Lopez
Gaur 12 urte bete dituzu, ZORIONAK txapeldun!! Zure familiaren partez, asko maite zaitugu.



Arantza eta Garazi
ZORIONAK bikote!! Ilusio handiz eta gogor lan eginez, azkenean lortu duzue. Bejondeizuela!!!



Markel Sueskun Herreros
13an urte bat beteko duzu, ZORIONAK zure arreba Laiaren partez eta familia guztiaren partez.



Elene Andueza Zelaia
Orain dela 6 urte, apirilaren 29an, etorri zinen guen bizitzara, pottoka ederra! ZORIONAK Bakaiku eta Lizarragako familiaren partez.



Elene Andueza Zelaia
ZORIONAK printzesa!! Larunbat honetan ospatuko dugu zure urtebetetzea Lizarragan. Oso ongi pasa zure ospakizunean, aitatxo eta amatxoren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Maiatzak

9-15

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Memo eta Ukatu. Maiatzaren 9an,



ostiralean, 23:30ean Iturmendiko Ximona gaztetxean.

The Allers. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Xaiko eta Ezinean. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

DJ Bull. Maiatzaren 10ean, larunbatean, Etxarriko gaztetxean gauerditik aurrera.

Totus Tuus. Maiatzaren 11n, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan. **Etxarri Aranazko abesbatza.**

Kontzertu erraldoia. Maiatzaren 14an, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Zelandiko kiroldegian. **Aralarko Mikel Donea eta Alaitz institutuetoako ikasleak.**

Dantza

Me lo cantó Buenos Aires. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Auzokoak. Maiatzaren 11n, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Traversé konpainia.**

Antzerkia

En lo más crudo del crudo invierno. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Incierto**

Troupe&Kromelch teatro.

Ipuin kontalaria

Izenak izana. Maiatzaren 9an, ostiralean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Eneko Haritza ipuin kontalaria.**

Proiektzioak

Irurtzun telebistaren saio berriaren aurkezpena. Maiatzaren 11n, igandean, 19:30ean Irurtzungo Iratxo elkartearen. **Martina eta Lore izanen dira.**

Mendi irteerak

Lizarrusti-Amezketeta. Maiatzaren 11n, igandean, 7:00etan. **Sakanako Mendizaleak.**

Palomares. Maiatzaren 11n, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Xabierko gaztelua. Maiatzaren 11n, domekan, 6:45ean Altsasuko Burunda klubeko mendibizikleta sailarren bajeatetik. 118 km.

Ibilbideak

Basaloreak ezagutzera. Maiatzaren 11n, igandean, 10:00etan Irurtzungo Plazaola hoteletik. **Gidaria: Felix Rey Bakaikoa.**

Erakusketak

Margoak eta maketak. Maiatzaren 10ean, goiz eta arratsalde, Iturmendiko auzo gelan. **Ana Larraza eta Jose Angel Galarza.**

Pintura. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta maiatzaren 11n, igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean. **Ikastaroko irakasle eta ikasleak.**

Literart. Maiatzaren 10ean, 11n, 17an eta 18an larunbatean eta domekan 18:00etatik 20:00etara Olatzagutiko kultur etxean.

Burundako ikastolen arte proiektua.

Nazabal arte eskola. Maiatzaren 15era arte. Astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Bertsolaritza

Bat-batean. Munduko musikarekin bertsotan.

Maiatzaren 9an, ostiralean, 22:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Oskar Estanga eta konpainia.**

V. Bertso Afari Txapelketa. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 14:00etatik aurrera Etxarri Aranatzeko. **Karrikestu elkarte.**

Bestelakoak

Gure Esku Dago (Burundako aurkezpena). Maiatzaren 9an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko plazan.

III. Amalur azoka. Maiatzaren 11n, igandean, 10:00etatik 14:00etara Etxarri Aranazko plazan. **EHNE eta Belardi.**

Guaixe.net-eko komunitatearen aurkezpena. Maiatzaren 14an, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 9an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 11n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Maiatzaren 12an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Sakanako herri
eskolen festa...

Esataria: *Eneida*

bertso ekitaldiak

>> Etxarri Aranatz

Bertso Afari Txapelketa baino gehiago

15 bertsolari neurtuko dira bihar
Etxarri Aranatzen

Bosgarren urtez Karrikestu elkar-teak Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketa (BAT) antolatu du. Euskal Herriko herrialde bakoitzeko bertsolari bana elkartu eta afal ondoren txapelketa jokatzeari izan da aurreko lau urteetako dinamika. Aurtengorako, ordea, Karrikestukoek, aurreko edizioetan parte hartu duten 21 bertsolariak gonbidatu dituzte eta 15ek baiezkua eman dute. Hala, afaria giroko bertso-txapelketa zena, egun erdiko ospakizuna izatera pasa da.

Euskal Herriko Bertso Afari Txapelketako egitaraua 14:00etan



Aurten txapelketa ez da mahaiaren bueltan jokatu, tabernetan baizik.

Parte-hartzaileak

Eneko Lazkoz, Saioa Alkiza, Oier Lakuntza, Egoitz Gorosterrazu, Aimar Karrika, Beñat Gaztelumendi, Maddi Ane Txoperena, Arrate Illaro, Iñaki Viñaspre, Oier Arbina, Jone Uria, Xumai Murua, Julio Soto, Eneritz Zabaleta eta Odei Barroso.

elkartean bertan egingen den bazkariarekin abiatuko da. Mahaitik jaso eta, 17:00etatik aurrera, Etxarri Aranatzko tabernetan barna ibiliko dira bertsolariak, kanporaketetan. Taberna bakoitzeko txapel-duna gauean gaztetxean jokatu den finalera pasako da. Azken saiorako hautaketa despeditu ondoren, Etxarri Aranatzko Gaz-

te Asanbladak auzatea eskainiko du gaztetxean, 21:00etan. Gazte egoitzan, 22:30ean, finala jokatu da. Eta hura despeditu ondoren, DJ Bull izanen da gaztetxean. Karrikestu elkarteari antolatuntzan Nafarroako Bertsozale Elkar-teak, Etxarri Aranatzko Udalak, Bierrik Fundazioak eta Gazte Asanbladak lagundu diote.

gertutik >>

Eneko Lazkoz

Antolatzaile eta parte-hartzilea

Zergatik sortu zen BAT?

Karrikestu elkarteko kultura taldeak bertsolari gazteendako sariaketa bat antolatu nahi zuen. Hura garatu eta nazio mailako ikuspegia eman zitzaion eta lurralde guztietatik bertsolariak ekartzea erabaki zen. Urtero sei bertsolari izan ditugu, EAeko hiru, Iparreldeko bat eta Nafarroako bi.

Txapeldunak errepikatu izan du, ezta?

Irabazleak hurrengo urtean defendatu du txapela. Azken biak berak irabazi zituen. Bosgarren edizioa zenez zerbait berezia egin nahi izan dute, eta orain arte parte hartu duten guztiak gonbidatzea erabaki genuen.

Kanporaketak tabernetan, nola?

Trikitilariekin batetik bestera jo-



anen gara eta bakoitzean, zozketa bidez, zeinek kantatuko duten erabakiko da. Hiruzpalau izanen dira eta ordu erdiko saioa egingen dute taberna bakoitzean. Sei tabernetako onenak gazte-txeko finalera joanen dira. Festa moduko bat izanen da eta finalera zein pasako den esatea ez da erraza. Zein bertsolari dau den ikusita, ziurrenik maila oneko finala izanen da.

Lanak? Eta epaileak?

Tabernetako kanporaketetan bi-nakako gai batzuk eta bakarka puntuak erantzutea. Ordu erdiko saioak. Finaleko lana guztiz zehaztu gabe dago. Kanporaketak epaitzen bi ariko dira eta beste hiru finala epaitzen.

>> Irurtzun

Munduko musiken erritmora inprobisatuz

Gaur, 22:00etan Irurtzongo kultur etxean, Oskar Estanga eta konpainia

Bi bertsolari eta hiru musikari igokodira iluntzean eszenatokira Bat-batean. Munduko musikarekin bertsoetan inprobisazio jaialdia eskaintzeko. Oskar Estanga (bertsoak eta gitarra) hasi zen emanaldiak eskaintzen baina duela urte bat edo konpainiarekin ari da, bertso eta musika inprobisatuaren fusioan. Konpainia horretan daude Beñart Artze (bateria), Manex Albiarra (baxua), Migel Mari Elozegi,



Estangarekin batera oholztan Jorge Cordon egonen da, teklatuarekin.

Luze (bertsoak) eta Jorge Cordon (teklatura) irurtzundarra. Aspaldiko lagunak elkartu dira taldean eta haiekin aritzea luxua dela nabarmendu du Estangak.

Estangak adierazi duenez, bertsoarekin eta musikarekin jolas-tuz, "naturalki" sortu zen Bat-batean proiektua. "Hitzeekin eta musikarekin inprobisatuz sortutako emanaldi bat da". Munduko hainbat erritmo oinarri hartuta bertsoan aritzen dira, doinu eza-gun eta ez hain eza-gunekin. Ber-

tsolariek hitzeekin inprobisatzen duten moduan hala egiten dute musikariek ere, jotzeko askatasunaz gozatuz.

Konpainiako formatuarekin Donostiako azken Aste Nagusian mustu ziren. Bilboko Campos Eli-seos antzokia eta Atarrabiko elkar-te batetik pasa ondoren, Irurtzongo alagarren emanaldia izanenda. Bertsozaleek harrera ona egin diote egitasmoari, baina baita bertsozaleak ez direnak, erritmoezagunen airean inprobisazioa entzutean.



Sarrerak saltzen egoteko
boluntarioak

behar ditugu. Deitu 948 562 107 telefonora edo idatzi bierrik@guaixe.net helbidera

Maiatzak 24
II. GUAIXE SARIA
Olazti Urbasa Rallysprinta



Zoila Berastegi

Iheslari baten motxila

astekoa

Bola bat eginik, txiklea, arrox koloreko txiklea. Alboan, zinema-ko sarrera bat: “Full monty”, Golem Baiona, 9. ilara, 13 eserlekuadio. Lehen muxuharen aurrekari izandako papertxoa eta kolorez disimulatutako petroleo zatitxoa, besterik gabe. Hutsa memoriaz betea. Mahai gainean san juan bezperan ateratako argazki hura. A ze nolako piura.

Betiko lagunak besotik helduta, irrifartsu, katxiak eskuetan eta blusa gerrian. Zer diren 18ak betetzea, eta mundua jateko adina gose izatea. Lagunak alboan, besterik ez da behar. Begirada jaso eta hantxe sekula jantzi gabeko jertsea. Amonak tentuz eta mimozegina, kolore hori eta berdekoa. Baina nork jasan bizkar eta besoetan sortzen zuen azku-

ra hura? Estalian garbigailuan bero-bero garbitu eta txiki-txiki aterazenean antzeztutako harri-dura keinua burura. Sekretu txiki bat. Itxi atea. Eskailerak behe-ra; 5.-ena eta 7.-ena ez zapaltzea hobe, goizeko ordu txikitik hel-du eta inork jakiterik nahi izanez gero behintzat. Pasilloan bar-na, eskubitarra egongela eta ezkerretara sukaldea. Tomateari gatz

eta azukre pixka bat bota behar omen zaio, eta “abajuari” baratzuri nahiz olio franko, ez omen zekien idazten eta mutilagunak eskutitzetan akats ortografikoak zuzentzen omen zizkion, fritoen misterio bakarra masari bueltak eta bueltak ematea, prestamoa ordaindu ahal izateko beltzean saldu omen zituen arkume bi eta txipiroiak hurren egunean beti

hobeak. Horrela dira sukaldeak, beti kontu kontari. Sarrerako atea istean etxeokoa usaitzeko gai ez diren etxeokoa usainaz da agurtu. Etxetik kalera, kaletik herri-ra, herritik mundura. Nork daki nora? Badoa denak utzita. Biho-tza uzurtua. Badoa, ez du beste aukerarik. Badoa joan nahi ez badu ere. Badoa eta ez du atzera begiratuko.

barrutik kanpora

Zer da kultura?

2008 urteaz geroztik, Euskal Herria pairatzen ari den krisia, krisi ekonomikotik haratagodoa. Sakanak industria eta zerbitzuetan bizi izan duen beherakada nabarmena izan da, Euskal Herrian bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren isla izanik.

Hala ere, Sakantzen Saretik haratago joan nahi dugu eta ego- era larri hau, krisi kultural edo baloreen krisi bat dela ere esate- az ausartzen gara. Beraz, geure

buruei askotan galdetzen diegun galdera pare baten inguruan pentsatzen jartzea eskatzen dizuegu: Zer da kultura? Zein dira nire baloreak?

Hausnarketa bat egin ostean, gaur egungo tresna edota erre- minta berritzaileak, kasu hone- tan Internet-ek, zer dioen azter- tzen hasi gara. Bertan txosten interesgarri bat aurkitu dugu eta *Plog eta Bates (1980): Cultural Anthropology*, Alfred A. Knopf

dioenaren inguruan erraparatut dugu. Hauen esanetan, Kultura, “sinismen, balio, ohitura eta joka- bideen sistema bat da, gizarteak erabili zein konpartitzen duena eta beraien arteko elkarrizketetan erabiltzen dena, belaunaldiz- belaunaldi ikaskuntzaren bidez transmititua.”

Kultura, azken finean, pertso- nek bere gizartearen baloreak eskuratzen dituzten prozesua da. Prozesu honetan erreparatu ezke-

ro, azken hamarkadetakoa gene- razio aldaketetan balore aldake- ta izugarriak gertatu dira. Mun- dua aldatzen doaneinean, batzuk beharrezkoak izan dira, baina beste batzuk aldiz, gizarte balo- reen garapenerako atzera pausoa izan dira.

Bizitzeko, lan egiteko edota ikas- teko ohitura eta jokabideak asko aldatu ditugu, batzutan onerako eta beste batzutan txarrerako. Ikuspuntu honekin, gure ikuspe-

gi kritikoa plazarazi nahi dizue- gu eta gure apustua hurrengo hilabeteetarako, balore hauek aldatzen hasteko, belaunaldi ezberdinen arteko elkarguneak antolatzea izango da, belaunaldiz- belaunaldi ikaskuntza, ezagutza eta esperientziak konpartitzeko eta sakandarron baloreak erai- kitzen jarraitzeko.

Gaur atzo baino hobe, bihar gaur baino hobeto!

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Nola hil nahi dugu?

Zure bizitzaren amaiera nolakoa izango den pentsatu duzu noiz- bait? Badakizu zer ez duzun nahi?

Bada agiri bat, Aurretiazko Borondate Agiria, hau guztia biltzen duena. Agiri horretan pertsona batek adierazi dezake zer osasun tratamendu nahi duen ala ez, zein zainketa jaso gaixotasun zehatz baten ebolu- zioan, zer egin organoekin hileta gero... Gure zaintza planifikatu dezakegu, noizbait kontutan har- tua izan dadin, gure borondate edo nahia adierazteko ahalme- na galtzen badugu (istripu edo gaixotasun larri bategatik adi- bidez). Bertan jasotakoa, legea- ren barruan badago, derrigo- rrez bete behar dute medikuek, estatu mailako erregistro bate- an jasota geratzen da.

16 urte gorako edonork egin dezake agiria (edozein unetan aldatu ere) hiru modu hauetako batean: adinez nagusi diren hiru lekukoren aurrean, notario aurrean edo agirien erregistro- ko funtzionario baten aurrean. Egokia da ere ordezkari bat izen- datzea, pertsona horrek agiria egin duenaren borondatea jakin behar du eta medikuekin boze- ramaile izan.

Informazio gehiago jaso daite- ke osasun etxeetan, Osasunbide- ko web orrian eta baita Iruñeko Amaia kalean dagoen Osasun Laguntzako Zerbitzuan ere. Badi- ra agiri eredu ezberdinak, web orri horretakoak, elizakoak, duin- tasunez hiltzearen aldeko talde- enak, bioetika batzordea eta abar; lagungarria da agiri eredu

bat izatea baina bakoitzak nahi eran molda edo bete dezake. Gure osasunean esateko gehiago dau- kagu pazienteen autonomia dela eta, baina agiri hau betetzeak hausnarketa sakona eskatzen digu. Sentsibilizatuago egon dai- tezke alorreko profesionalak, bai- na batez ere inguruan edo fami- lian norbait zaintzen aritu dire- nak, norbait sufritzen ikusi dutenak.

Beraz, zure bizitzaren amaie- ran, osasun alorreko zure desio- ak kontuan izatea nahiko zenu- ke? Zure desio eta argibideak azaltzen badituzu beteko dira, beraz, pentsatu eta jasota utzi AURRETIAZKO BORONDATE AGIRIAN. Zure ingurukoei eza- gutzera eman.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

gutunak

Gutun igorle anonimoari

Rakel Ausin eta Aitor Irigoien

Zenbait familiei gutun anonimo- ak bidali dizkien pertsonari zuzenduta dago gutun hau:

Ez kritikek, ez kontseiluek ez dute inolako baliorik anonima- tuan babestuta egiten direnean. Laguntzeko asmoa badu, aurpe- gia eman dezala eta harremane- tan jarri dadila.

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egiten dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iri- tzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net** edo **948 564 275** telefonoa.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



SAKANA

Petriati: Herritarren inplikazioari eta irmotasunari esker hartzen dira neurriak

Hala ere, pasa den urtean euskararen herrian euskaraz bizitzeko makina bat traba Hizkuntza Eskubideen Behatokiak

Hizkuntza Eskubideen Egoera Euskal Herrian 2013 txostena aurkeztuzuen herenegun Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Garbiñe Petriati zuzendariak nabarmendu zuenez, "herritarrek egiten duten lanari esker administrazioek urratsak ematea lor daitekeela agerian geratu da". Petriatik gaineratu zuenez, "erakunde publiko zein pribatuek hizkuntza-eskubideen bermea aintzatez hartzearen ondorioz, herritarrak eskubidez gabeturik ikusten du bere burua askotan".

Behatokiaren txostenean jaso denez, pasa den urtean "Nafarroako Gobernuaren jardunak ez du aldaketarik izan eta euskararen aurkako jarrera izan du ezaugarri: euskaltegiak diru-laguntzarik gabe, euskarazko komunikabideak ere diru laguntzarik gabe, udaletako euskara zerbitzuetarako dirua nabarmen murriztuta..." Txoste-

nean ere jaso da foru administrazioaren hizkuntza-eskubideen urratetako sistematikoa izan dela: "Dereduaren hedapena oztopatzen segitzen du; liburutegietan, osasun-zerbitzuetan, epaitegietan, ez du Nafarroako Gobernuak euskarazko zerbitzurik bermatzen, ezta hizkuntza ofiziala den zonaldean ere".

Sakana

Osasun arloan Nafarroako Gobernuak legeriaren aitortza eskasa ere ez duela betetzen salatu du Behatokiak. Kontsultak euskaraz ezin direla pasa edo osasun etxeetako administrazio postuetan erdaldunak daudela. Eremu euskalduneko mediku eta erizain erdaldunak izendatu dituztela kexu azaldu da Behatokia. Eta ordezkoei ere gauza bera gertatzen dela azaldu du.

Emakumeen Arretarako Zentroetako profesional bat bera ere euskalduna ez dela eta kexuak jaso dituzte Behatokian bai Arbizutik,



Murgiako herritar batekin batera eman zituen azalpenak Petriatik. UTZITAKOA

bai Etxarri Aranaztik. Behatokiak berak, bestalde galdetu du zergatik Etxarri Aranazko osasun etxe-ko lanpostuetan hizkuntza irizpideak zehaztuak dauden eta Irur-

tzungoan eta Altsasukoan ez.

Herritarregandik gertuendauden administrazioak izanda, udaletako buruzko hainbat ohar jaso dituzte Behatokian. Tartean Sakanatik.

www.euskararentelefonoa.com

Behatokiaren doaneko zerbitzua da. Hizkuntza-eskubideen urraketek konponbidea emateko tresna zuzen eta eraginkorra izan nahi du. Zerbitzua Euskal Herriko edozein herritarren eta elkarteren eskura dago, kexa edo zorionteak jakinarazteko. Jasotakoarekin osatzen du urtero txostena Behatokiak.

Behatokian kexu azaldu ziren Zierdiko Udalak gaztelania hutsez zerbitzatu edo argitaratzeagatik. Altsasuko Udalarekin ere kexu azaldu ziren herritarrak Berdintasun Saileko ikastaroetarako irakasleak kontratatze oso atutako lan politan euskara meritu zelako eta ez ezinbestekoa.

Bikexen kontura Arakilgo Udalak Behatokiari jakinaraziz zion arakildarren hizkuntza eskubideak babesteko bi neurri hartu zituela. Batetik, udaletxean protokoloa ezarri zutela herritarrek aukeratutako hizkuntzan zerbitzua eman ahal izateko. Eta bestetik, Nafarroako Gobernutik gaztelania hutsez jasotakoa euskaraz ere eskatzea.

ERABAKITZEKO
ESKUBIDEARI

BAI

EKITALDIAK

M16 Ostirala **BAKAIKU** 19:00etan Udaletxean

M17 Larunbata **LAKUNTZA** 13:00etan Herriko Plazan

M18 Igandea **ARBIZU** 13:00etan Herriko Plazan

EMAN BOTOA **ehbildu**
herrikerabaki

SAKANA

Pozik elizaren frankismo garaiko pribilegio batekin bukatu delako

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak eskatu du legea onartu bezain pronto indarrean sartzeko eta ez urte bat geroago

Espainiako Ministro Kontseiluak apirilaren 11n Hipoteka Legearen aurreproiektua aurkeztu zuen. Araudi zirriborroan jasotzen den aldaketetako bat 206. artikulua den aldaketa da. Orain arte artzapezpikuei fedatari publikoen ahalmen berak ematen zitzairen, eliza katolikoa administrazio publikoen pare utziz. Konfesio horretako buruei bere izenean hainbat ondasun jartzeko bidea ematen zien artikulua horrek, baina aurreproiektuaren arabera aukera hori galduko luke elizak, legea onartu eta urtera.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak lege aldaketa ospatu beharreko albistetzat jo du, “arrazoi genuen, zazpi urteko lanaren ondoren gure aldarrikapenei kasu egin zaielako”. Hala adierazi zuten herenegun Plataformaren izenean hiru alkatek: Unai Lakok (Agoitz), Kirio Gastearenak

(Atarrabia) eta Txiki Iriartek (Irurtzun). Hirurek ere azaldu zuten, Europar elizak halako abantailak izatea ere ez zuten begi onez ikusten eta PPK “gogo txarrez, atzera egin behar izan du”.

Plataformatik nabarmendu zuten 206. artikulua hori konstituzioaren kontrakoa dela. Legea aldatzean elizaren eskubidea berehala indargabetzeko exijitu zuten, araudiaren zirriborroan urte baten ondoren elizak eskubide hori galtzea aurreikusten baita. Plataformako atzoko prentsaurrekoan gogora ekarri zuten bere kide diren zenbait udal eta konzejuren borroka auzitegiara helduzela, “baina legea elizarekin bat egon da beti”. Aldi berean, oraindik plataformarekin bat egin ez duten toki erakundeei batzeko deia egin zieten.

66

Elizak bere izenean jarritako Sakanako ondasunak. Irañetako epaia eta gero 67 dira. Eta Nafarroan 1.088 izan dira.

Irañetan kontrako epaia



Elizak aurretik San Migel berri eta San Pedro ermitak bere izenean jarrituela ikusita, Irañetako Udalak 2009ko otsailaren 18an herri sarreran dagoen San Gregorioko ermita bere izenean jarri zuen. Erabaki hori baliogabetzeko eskatuz eta parrokiaren jabetza onarrezala eskatuz elizak epaitegira jo zuen. 2012ko maiatza akaberan

Iruñeko auzitegian elizari eman zioten arrazoiak. Orduan artzapezpikutzatik oharra zabaldu zuten azalduz epaileak kontuan izan zituela Irañetako parrokiako kontu liburuak. Udalak helegitea aurkeztu zuen eta apirilean aurretik emandako epaia berretsi du auzitegiak, udala epaiketa gastuak ordaintzera behartuz.

Madariaga, elizaren inmatrikulazioei buruzko jardunaldietan

Nafar Ondarearen Defentsaren Aldeko plataformak antolatuta gaur hasiko dira eliza katolikoa-

ren inmatrikulazioei buruzko aurreneko jardunaldiak. Hurrengo hiru ostiraletan Iruñeko Gurutzeko institutuan, 19:15ean, izanen dira saioak, guztiak ere Mariano Ferrerrek gidatuak. Gaur, jardunaldia zabalitzeko Ale-

jandro Torresek eta Antonio M. Rodriguezek hartuko dute hitza, zuzenbidearen ikuspegitik elizaren jabetze horiek aztertzeak. Moralaren ikuspegitik inmatrikulazioen gaia landuko dute Gonzalo Puente Ojedak eta Joxe Arre-

gik heldu den astean. Eta jardunaldiak ixteko, maiatzaren 23an, Nafarroako Unibertsitate Publiko irakasle Juan Madariaga egitarretarra eta Joseba Asiron izanen dira historiaren ikuspegitik gaia landuko dutenak.

>> Altsasu

Gure Esku Dago burundarra

Ibarrerako aurkezpena gaur, 20:00etan egingen da Altsasan

Bakaiku eta Ziordia arteko herriei, Burunda ibarrari, 83. km dagokio Gure Esku Dagok antolatu duen giza katean. Ekimen horrek garagarriaren 8an, igande eguerdiz, Durango eta Iruñea lotu nahi ditu,

123 km luzeko giza katea osatuz. Guztia erabakitze eskubidearen alde egiteko.

Ekimena Burundan aurkezteko eta burundarrak parte hartze- ra animatzeko gaur ekitaldia izanen da Altsasuko plazan. Gure Esku Dago ekimeneko kide batek

beharrezko azalpenak emanen ditu. Harekin batera ekitaldian Castillo Suarez, Enrike Zelaia, Zubiondo abesbatza eta fanfarrea ariko dira. Gainera, garagarriaren 8rako entsegu moduan, bildutakoen artean giza kate bat sortzeko asmoa izanen da.

Altsasun katean parte hartzeko txartela erosteko aukera izanen da. Eta parte ezin duenak 0 km edo laguntza txartela izanen du eskura. Bestalde, aurreko ostiralean Lakuntzan egin zuten Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena.

MOTZEAN

Etixerako egur loteak eskatzeko azken astea

Gaur despedituko da Altsasuko Udalarik etxerako egur loteak eskatzeko epea. Iortia kuktur gunean egingen den zozketa baten bidez emanen dira 150 baso aprobetxamendu horiek. Aurten lote horiek Gurdilaz, Torretxi eta Basoitxi para-jeetatik aterako dira eta bakoitzak 3.000 kilo ingurukoak izanen dira. Familia unitate bakoitzak egur lote bana besterik ezin izanen du eskatu. Beti ere, erroldan hiru urteko antzitasuna izan behar da eta Altsasun urteko bederatzi hilabete bizi behar da gutxienez. Eskatzaileek udal zergak ordainduak izan behar-ko dituzte. Lote bakoitzaren balioa 20 eurokoa da.

Pintura kutxa eta bankuen kontra

Aurreko ostegunean Altsasuko kutxa eta bankuen egoitzak pinturaz zikinduta agertu ziren. Gehienetan kolorezko pintura mantxa txikiak baziren ere, BBVAren kasua bestelakoa zen, fatxada guztia pintura txuriz estalia baitzegoen.

Bi sakandar Europako Parlamentuko hauteskundeetako zerrendetan

Biak ere altsasuarrak dira eta EHBil- duren eta BNGren eta beste hainbat alderdik osatu duten Los Pueblos deciden zerrendan daude. Mikeldi Diaz Aldama 21. postua dago eta 23. Esther Korres Bengoetxea- rendako da. Europako Parlamentu- rako hauteskundeak maiatzaren 25ean izanen dira. 41 hautagaitza aurkeztu dira parlamentuko 54 aul- kiak eskuratzeko lehia.

ITBren saio berria igandean

Martina eta Lore aurkezle saltsero- ak bertan direla, igandean, 19:30ean, Iratxo elkarteak Irurtzun Telebista- ren saio berri bat aurkeztuko da. Azken hilabetean Irurtzunen izan diren gertakari nabarmenenak bi aurkezleen ikuspegitik ezagutzeko eta gozatzeko aukera izanenda etzi.

Ziordiko udala

ALDAKETA XEHAKATUA UDAL PLANEAN. HASIERAKO ONESPENA

Ziordiko Udalak, 2014ko martxoaren 31n egin osoko bilkuran, aldaketa bat hasiera batean onetsi zuen, aho batez, indarra duen Udal Plan Orokorrean, lurzoru urbanizazioneko eraikuntzen gainekoa. 55 eta 102. artikulua ukitzen ditu eta 103. artikulua berrikusi erantzen.

Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikulua xedatuari jarraikiz, espedienteak jendaurrean egonen da hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek azter dezaten eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.



Ziordian, 2014ko apirilaren 8an.

Alkatea: Jesús M. Arrese Galbete

ZIORDIKO UDALA

**>> Urdiain**

3,5 kiloko amuarraina Urdiainen

Ander Aguirrek arrantzatu du

Egunotan ohikoa da gure ibaietan arrantzaleen presentzia. Badirudi, gainera, neska-mutikoen arrantzara joateko zaletasuna berreskuratzen ari direla. Urdiainen, egunero arrantzatzera doa koadrila bat. Eta badirudi fruituak jasotzen ari direla. 13 urte dituen Ander Aguirre San-



tanok 3,5 kiloko amuarraina arrantzatu zuen apirilaren 5ean. Zorionak eta on egin!

» Etxeberri

Festetarako frontoia estalita nahi dute

Lanak emateko kontratazio mahaia aste honetan osatuko da

Etxeberriko Kontzejuako aurtengo aurrekontua ere frontoia estaltzeko lanei begira egin dute. 11.410,76 euro dira kontzejuak aurtengo aurreikusi duen aurrekontua. Javier Martija kontzeju-buruak argitu digunez, pasa den urtean ziren frontoiko lanak egitekoak. “Baina arkitektoak gaztigatu zigun kontrakantxa aldean kotarekin arazoak izan zitezkeela.

Baxu gelditzen zen eta euriarekin arazoak izan genitzakeela jakinaz zigun”. Horregatik, lanen proiektua aldatu behar izan zuten. Martijak esan digunez, aste honetan lanak emateko kontratazio mahaia eratuko dute eta ibarreko zenbait enpresari gonbitea luzatuko diete. Bi aste izanendituzte proposamenak aurkezteko eta maiatza akaberan erabakiko du kontzejuak zeini eman lanak. “Obra erraza da baina egurrak



Festetan frontoian egindako herri kirol probetako bat. ARTXIBOA

hilabete beharko du lehortzeko. Hiru hilabetetan egina egonen dela espero dugu, festetarako”, esan digu kontzeju buruak.

Finantziazioa

Etxeberriko frontoia estaltzeko lanek 90.000 euroko aurrekontua dute. Arakilgo Udalak heren bat ordainduko du 28.000 euroko dirulaguntza baten bidez. Gainontzekoa, Etxeberriko Kontzejuaren bizkar geldituko da. Horretarako kontzejuak bere bipsisuetako bat saldu dio han hiru urtez alokatua bizitzen pertsonari. Horrela, aurrekontuaren heren bat estali du kontzejuak eta beste herena bere diruzaintzako soberakinarekin ordainduko du.

» Zuhatzu

Maistraren etxea alokatzeko egokituko da

Udan lanak egin eta udazkenarako alokatu nahi du kontzejuak

Aurtengo aurrekontua maistraren etxea zena konpontzera bideratua du Zuhatzuko kontzejuak. 11.410,79 euro dira aurtengo kontzejuak erabiliko duen aurrekontua. Bere buru Zuriñe Ormaetxeak esandigunez, “eraikinaren barruko aldea konponduko dugu, berogailua, leihoak eta beste berrituz”. Ormaetxeak azaldu digunez, etxebizitzak bi solairu ditu eta bakoitzeko 180 metro karratu. Lursaila ere badu.

Lanak garagarriela hasieran hastea espero du Ormaetxeak eta bizpahiru hilabeteren bueltan despedituta egotea. Lanek 43.649,39 euroko aurrekontua izanen dute (BEZ kanpo). Arakilgo Udalak emandako dirulaguntzarekin eta kontzejuak diruzaintzan duen diruarekin erdi bana ordainduko dute lana. “Gure asmoa etxea alokatzea da, kontzejuak diru-sarrera bat izan dezan” esan digu Ormaetxeak. Udazkenarako alokatua izatea espero dute.



Maisuaren etxearen barruko aldea konponduko du kontzejuak.

» Altsasu

Altsasuk hartuko du Sakanako herri eskolen festa

Larunbaterako egun osoko egitaraua prestatu dute

Sakanako herri eskolen festaren laugarren edizioa izanen da biharkoa. Antolakuntzan aritu den Edurne Ruizek azaldu digunez, eskoletako guraso elkarteak Sortzenekin harremanetan hasi ziren eta handik sortu zen festa. “Eskola guztien arteko batasuna bermatu eta indartu nahi genuen festa sortzean”. Elkarlan eta harreman hori hilero Sortzenekin egiten dituzten bileretan indartzen da eta bihar festa giroa gehituko da. Harreman horiek eta eskola herriartzeko modua izanen baita biharko ospakizuna.

Sakana Herri Eskolekin Sortzen leloa du biharko ospakizunak. Ruizek gaineratu digunez, herriak bizirik mantentzeko eskolek garrantzia dute. Nabarmendu du ikastetxeak euskararendako arnas-gune direla ere.

Handitu

Orain arteko guztietan goiz parteko egitaraua izan da. Aurtengo Zelandi eskolari zegokion antolakuntza eta antolakuntzaren ardurak makina bat emakumek hartu zuten. Altsasuko kultur eragileen aldetik erantzun aparta jaso zuten eta horrek bultzatu zituen goiz parteko ospakizuna antolatzenetik egun osokoa antolatzera. Eskola kalea ateratzeko ikastetxe bakoitzak



Arbizuri hartuko dio lekukoa Altsasuk eta berriro jendetza elkartuko da.

Egitaraua

- 10:00etan** Diana. Burundar txistulariak.
- Foru plazan**
- 11:00etan** Hasiera ekitaldia. (Aurkezpena, txalaparta, dantzak, bertsoak...).
- 11:30ean** Eskuetan Flash-move-a (Eskola guztietan landutakoa).
- 12:00etan** Herri eskoletako tailerrak.
- 12:00etan** Hamaiketakoa. Gure etxeako barran.
- 12:00etan** Haize Berriak bandaren kalejira.
- 12:00etan** Etxarriko Herri Eskolako zankoak.
- 13:30ean** Momotxorren dantza eta Haize Berriak bandaren fusioa.
- 14:30ean** Herri bazkaria.

- 16:00etan** Altsasuko fanfarrea bazkalondoa alaitzeko.
- 16:00etan** Pailazoak.
- 18:00etan** Altsasuko buruhandiak eta erraldioak. Altsasuko gaiteroak.
- 19:00etan** Herri poteoa.

- Zubetzia gunea**
- 13:00etan** Inauterietako batzordearen ikuskizuna.
- 16:00etan** Puzgarriak.

- Otai gunea**
- 17:00etan** Zirkorik ikuskizuna. Alain.

Oharrak: Egunean zehar barra jarriko dugu. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian eta lortia kultur etxean egongo gara.

teko ospakizuna antolatzetik egun osokoa antolatzera. Eskola kalea ateratzeko ikastetxe bakoitzak

bere tailerra antolatuko du. Horrela denen presentzia ziurtatzen da eta haien lanak erakusten.

» Arruazu

Albi gazta Idiazabalen saritua

Igandean 17. Gazta eguna hartu zuen Idiazabalek. Jendetza bildu zen Goierriko herrian eta haietako 136k eman zuten izena gaztak dastatu eta epaile gisa aritzeko. Eta herritar horiek izan ziren euren botoekin gazta onenaren saria Mutrikuko Goienetxe baserriko Arnogaztari saria eman ziotenak. Arruazuko Albi gaztandegialaugarren izan zen. Arbazuarrak, gainera, ongien edertutako postuen lehaketan bosgarren izan ziren.

MAITE

ARRAINDEGIA

KANTAURI ITSASOKO ANTZOAREN GARAIA

948 467 385 • 607 973458 • La Paz 3 • ALTSASU

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoeetxea@yahoo.es

>> **Irurtzun**Abendutik martxan da www.guaixe.net atari berria. Argazkian aurkezpena.

Guaixe.net-eko Komunitatearen aurkezpena

Asteazkeneko saio praktikoan web orriko Komunitatean parte hartzeko eman beharreko pausoak erakutsiko dira

Abenduan berrituzuen Bierrik fundazioak www.guaixe.net weborria, Sakanaz sarean euskaraz hobe informatu ahal izateko. Izan ere, informazio kontsumoan aldaketa ugari emandira (gailu mugikorren bidezko bisitak, esaterako) eta herri-tarren behar berriei egokitzeko apustua izan zen web aldaketa.

Sakanaz sarean euskaraz aritzeko gune berriak, www.guaixe.net-ek, informazioa eta gaurkotasuna kudeatzeko tresna berriak eskaintzen ditu. Eta horietako bat da Komunitatea, asteazkenean Irurtzunen aurkeztuko dena. Edozein sakandar edo ibarreko talde egin daiteke kide eta bere profilaren bidez web orrian zuzenean parte

hartzeko aukera izanen du; argazkiak, testuak, bideoak eta audioak ibarrarekin partekatzeko. Gainera, Guaixeren Facebook eta Twitter kontuetan ere zabalduko da web orrira igotakoa. Irurtzundarrak eta herriko talde eta eragile guztiak daude gonbidatuta Komunitateko kide egitera, baita asteazkeneko saiora joatera ere.

Aurkezpen egutegia

Maiatzaren 14an, asteazkenean, 18:30etan, Irurtzongo kultur etxean.

Maiatzaren 20an, asteartean, 18:30etan, Olaztikoko kultur etxean.
*Aurki herri gehiagotan aurkezpena.

>> **Etxarri Aranatz**

Lehen sektorea plazara

III. Ama-Lur azoka egingen da igandean, 10:00etatik 14:00etara Etxarri Aranatzko plazan

Azoka gardena izanen da etxi Etxarri Aranatzaren izan dena. Hauda, nekazari eta abeltzainak beraiek izanen dira eurek sortzen dituzten produktuak salduko dituztenak. Garaiko kalitate handiko eta prezio oneko produktuak izanen dira aukeran azokako 25 postuetan. Gainera, eguerditik aurrera gaiteroak, gazta tailerra, herri kirolak eta euskal zerri errearen dastatzea, ganadu feria eta gehiago opatuko ditu bisitariak.

Belardi

Azoka Belardin eta EHNE sindikatuan biltzen diren ibarreko nekazari eta abeltzainen ekimenari eskersortuz. Sindikatuak orain dela lau urte ARCO (Ardura Partekatutako Nekazaritza) jarri zuen martxan. Salmenta zuzena eta bide motzako merkaturatzea bultzatzen du eta filosofia horri jarraituz sortu zen Etxarriko azoka. Aurtengo azokak Etxarriko udalaren eta Leader programako 4. ardatza (Feader) Europako nekazaritza eta landagunea garatzeko funtseko dirulaguntza zein Nafarroako Gobernuaren babesa du, Cederna Garalurren bitartez.



Jende asko elkartzen da azokan.

Zatoz Baratzera

Aurten EHNEk, Garalurren babesarekin, martxan jarri duen egitasmoaren izena da Zatoz Baratzera. Helburua Nafarroako Mendialdean ARCOren funtsa zabaltzea da. Horretarako sei azoka antolatuko dira udaberri-uda partean. Dagoeneko bi azoka egin dira eta Etxarriko da hirugarrena. Atzetik etorriko dira Iruberrri, Otsagi eta Aibekoak. Azoka horietan, batez ere, eskualdeko nekazari eta abeltzainak dira protagonistak eta EHNE sindikatuan afiliatutako Nafarroako beste eskualdeetako nekazariak osatzen dute eskaintza. Horrela kontsumitzaileek elikagai aniztasuna aurkituko dutela ziurtatzen da.

EHNE-Belardiren apustua

Belardik EHNE sindikatuan dau den Sakanako nekazari eta abeltzainak hartzen ditu. Hiru urte dira lanean hasi zirela. Ama-Lur azoka izan zen aurreneko emaitza. Baina pasa den urtean Irurtzongo udazkeneko azoka berreskuratu zuen, beste erakunde eta elkarteekin batera, eta errepikatzeko modukoa izan zena. Prestakuntza ere lantzen ari dira Belardikoak. Hala, Cederna Garalurren laguntzarekin, larreen kudeaketa iraunkorrari buruzko ikastaroa antolatu zuten eta Alina de Castro irakasle ezaguna izan zen Sakanan. Ikastaroaren osagarri Iparraldera egindako bidaia izan zen. Larreen kudeaketarako eredu iraunkorrak praktikan ikusi zituzten.

Aldi berean, EHNE-Belardiko abeltzainek euren pentsuetan eta ustategietan transgenikoak ez erabiltzeko apustu garbia egin dute. Ahalegin horrekin bat egin du Sakanako zereala eta pentsuen presa hornitzaile batek eta bere eskaintzatik transgenikoak kendu ditu. Azokan horren berri emanen du enpresak.

>> **Iturmendi**

San Migel festak

Gazte asanbladak gaur hasiko ditu ospakizunak eta bihar egun handia izanen da

Gaur eta bihar festa giroa izanen da Iturmendin, San Migel festak ospatuko baitira. Kultura Batzordea izan da biharko egitaraua prestatu duena. Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA), berriz, gaurko eta biharko ekitaldiak prest ditu. Festetan bai gaztetxea bai Aritzaga elkarteak kudeatuko ditu IGAK. Biak ere taberna moduan ariko dira asteburuan eta fritoak ere eskainiko dituzte. Lortzen den dirua Eztanda Irratian hobekuntzak egiteko eta gaztetxe-ko lanekin segitzeko izanen da. IGAtik gogorarazi dutenez gaztetxean ez dute eraso sexistarik, homofoborik edo faxistarik onartuko.

Egitaraua

>> Maiatzak 9 ostirala (IGA)
20:00etan Trikipoteoa eta auzatea.
22:00etan Afaria Aitzkozar elkartearen.
23:30etan Kontzertuak Ximona Gaztetxean: Memo eta Akatu.

>> Maiatzak 10 larunbata
11:30etan Meza.
12:00etatik 14:00etara Pintura eta maketa erakusketa Auzoan.
12:30etan Auzatea.
12:30etan Toka.
18:00etan Jokoak frontoian. (IGA)
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Dj Etxenikerekin.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Dj Etxenikerekin.
02:30etan Dj Serguey Aritzaga Elkartearen. (IGA)

>> **Olatzagutia**

Urteurren ospakizunak gaztetxean

Gurea delako, gurea sentitu. Zorionak Maisuenea. Lelo hori aukeratu du Olaztikoko Gazte Asanbladak (OGA) Maisuenea gaztetxearen 19. urteurrena ospatzeko. Urteurren ospakizunak aurreko ostiralean hasi ziren eskulan tailer batekin eta martxan jarri zen areto futbol txapelketarekin. Ospakizun egitarauak gaur eta bihar segida izanen du. Gaur baserri-tarrez jantzita agertzeko deialdia luzatu du OGAK. Bihar, berriz, moztarrotuta.

Egitaraua

>> Maiatzak 9, ostirala
20:00etan Txupinazoa Maisueneatik. Ondoren, euskal poteoa herrian barna, Aritu euskaraz taldea.
22:00etan Afari-autogestionatua.
>> Maiatzak 10, larunbata
11:30etik 13:00etara Haurrendako jolasak.
13:00etan Triki poteoa.
14:30etan Bazkaria. Ondoren, moztarrot txapelketa.
16:00etan Maisuolinpiadak, areto futboleko pistana.
18:00etan Batukada herrian barna.
23:00etan Kontzertuak: Xaiko eta Ezinean.

>> **Irurtzun**

Basaloreak ezagutzeko ibilaldia

Igandean Irurtzun inguruan sortzen diren loreak ezagutzeko primerako aukera eskaintzen du Kultura Kontseiluak. Felix Rey Bakai-koa gidari dela, herri inguruan sortzen diren loreen ezagutza hobetzeko aukera izanen dute botanikakozaleak. Egierretarrak Aralar mendiko loreak ederki ezagutzen ditu, haiei makina bat argazki atera die-lako. Gainera, Iruñeko auzo batean egiteko botanika ibilbideak jasotzen dituen liburu txiki bat argitaratua du ere. Iganderako hitzordua Plazaola hotelean jarri dute, 10:00etan.



Izen ematea

948 600 412 telefonoan edo kulturetxea@irurtzun.es helbidean. Doan. Egunkari bat eta boligrafoa eramatea eskatu dute.





GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Jesus Arraiza Ongay

III. urteurrena



Eguneroko bizia guretzat ez da erraza. Izan eta zinen bezelakoa gogoratuko zaitugu.

Zure familia

Bere aldeko meza, maiatzaren 11n goizeko 11:00etan, Lakuntzako San Salvador elizan izanen da.



Anttoni Aldasoro Milagros Artieda Jose Ramon Anso Jorge Ijurko Iñaki Orce

Beti gogoan

59ko kintoak

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Liburudenda bat eskualdatzen da. Sakanan. Telefonoa: 661 26 46 51.

Ikastaroak

AES. “Enpresa ingelera II”, Arbizon, 70 ordu, iraila-azaroa; “Ingelera elkarriketa praktikak”, Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizon, ekaina “Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua”, Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; “Adimen emozionala”, Arbizon, 30 ordu, iraila-urria; “ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak”, Arbizon, 35 ordu, ekaina; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizon, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es – 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketak

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura oro-korreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuek euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpinak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar->

[dugu?](#)lang=eu bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzten: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpain-a. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Filosofia – trukea. Informazio gehiago larrezabaldek@inigoaritz.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publiko-en inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen.

Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoe-na: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko maki-nak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eram-an: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalai, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz-kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta-tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Arantzen, astearteetan Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gune-an (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefo-noa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina:

12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru per-tsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, saka-na_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berresku-ratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduari egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridi-koa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsa-su.net).

Ezgaituen Elkarteak bazkideak eta lagun-tzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaituen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaituek aisia behar dute. Laguntzailean izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaituen Elkartetik.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta elkarteek erabil dezakete urte guztian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrekoak jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko.euskara@zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo

EZKONTZAK

- **Iker Goncalvez Llamas,** apirilaren 29an Altsasun.
- **Noa Flores Araña,** maiatzaren 1ean Etxarri Arantzen.

HERIOTZAK

- **Filomena Marin Erbiti,** apirilaren 28an Uharte Arakilen.
- **Maria Concepción Valencia Nuñez,** apirilaren 29an Olaztin.
- **Angeles Asarta Arana,** maiatzaren 1ean Altsasun.
- **Eusebio Alegria Flores,** maiatzaren 2an Lakuntzan.
- **Primitiva Aranburu Aldasoro,** maiatzaren 3an Altsasun.
- **Felipe Galbete Herrero,** maiatzaren 5ean Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

itzulpenak@sakana-mank.com) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

Naziotasun eskubidearen urraketak salatze-ko telefonoa. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean ageri den naziotasun eskubidea urratzen jarraitzen dute frantziar edo espainiar izatera behartzen gaituztenean. Gurea ez den naziotasuna adieraztera behartzen gaituzten bakoitzean (edozein izapide administratibo edo ekonomiko egiterakoan, botoa ematerakoan, etab.) salaketa egiteko telefonoa jarri du Udalbiltzak: (0033) 559 595 648.

Saharan giza laguntza banatzeko garraio basea. Hori egiteko Mugarik Gabeko Teknikari eta Langileen Elkarteak kontu korrontea zabalik du Rural Kutxan: 3008 0085 86 1463467025

Alkoholikoen lagun eta familiartekoen laguntza taldea. AL-ANON elkarte alkoholiko-en lagun eta familiartekoen laguntza taldea da. Harremanetarako, deitu 639 400 406 telefonora.

kirola >>

PILOTA

GRAVN TORNEOA NAFARROARENDAKO:
Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Iparralde eta Nafarroako selekzioek jokaturako

torneo estuan nafarrak gailendu dira, ezker paretako frontoian 105 puntu eta trinketean 97 puntu lortu eta gero.

Mendi lasterketak

Aritz Munarriz laugarrena I. Apuko Long Trailean

PEDRO ETXEBERRIAK IRABAZITAKO 65 KILOMETROKO MENDI LASTERKETA LUZEAN 8 ORDU ETA 48 MINUTU EMAN ZITUEN ETXARRIARRAK KORRIKA

Zubi honetan makina bat mendi lasterketa izan ditugu gurean eta korrikalarisakandarrek sekulako maila eman dute guztietan. Aipatzekoa da Aritz Munarriz etxarriarrak larunbatean Bizkaiko Zaramillo herrian antolatutako I. Apuko Long Trail lasterketan lortutakoa. 65 kilometroko eta 4.500 desnibel positiboko proba gogorrean laugarrena sailkatu zen Munarriz (8:48:32), Pedro Etxeberria (8:23:16) irabazle zumaierrenen gainetik 25 minutura. 155 korrikalarik osatu zuten proba.

Bestalde, ostiral gauean I. Oñatiko Gaueko Lasterketa Bertikala jokatu zen. Arantzazuko santutegi azpiko Bellotzako zubitik Buetraitz tontorrera igotzea zen kontua. Iñigo Lariz izan zen azkarrena (27:57). Beñat Katarain lakuntzarra 20.a izan zen (33:08).

Oñatin igandean jokaturako X. Aloñako Igoeran (22,6 km) Ionut Zin-



Aritz Munarriz Apuko 65 kilometroko lasterketan. UTZITAKOA

ca txapelkun handia gailendu zen (2:00:04) helmugara iritsi ziren 269 korrikalarien artean. Sakandarren artean ostiralean Oñatiko gaueko probatik lehiatzen zirenen Fidel Jimenez etxarriarra izan zen azkarrena (2:31:33). Bestalde, kadeteetan Eki Imaz 4.a izan zen (2:11:46).

11 sakandar Elomendin

Igandean jokatu zen 6. Elomendiko Xtreme maratoni erdia (21 km). 293 korrikalari iritsi ziren helmugara, Raul Roda (1:44:08) buruzela. 11 sakandar lehiatu ziren, eta Joxeja Maiza etxarriarra izan zen azkarrena (1:54:45).

I. Apuko Long Traila (65 km):

1.	Pedro Etxeberria	8:23:16
4.	Aritz Munarriz (Etx)	8:48:32
18.	Adur Maiza (Etx)	9:35:08
66.	Sergio Goñi (Olaz)	11:11:41

I. Oñatiko Gaueko lasterketa bertikala (2,7 km):

1.	Iñigo Lariz	27:57
20.	Beñat Katarain (Lak)	33:08
32.	Fidel Jimenez (Etx)	34:27

X. Aloñako Igoera (22,6 km):

1.	Ionut Zinca	2:00:04
55.	Fidel Jimenez (Etx)	2:31:33
120.	Patxi Rubio (Uhar)	2:53:15
121.	Jose Antonio Salgado (Alts)	2:53:17
152.	Alberto Arrizabalaga (Olaz)	3:02:56
155.	Javier Gonzalo (Uhar)	3:03:19

6. Elomendi Xtreme maratoni erdia (21 km):

1.	Raul Roda	1:44:08
13.	Joxe Javier Maiza (Etx)	1:54:45
29.	Aitor Hernaiz (Lak)	2:01:40
40.	Mikel Sasiain (Etx)	2:04:48
41.	Mikel Satrustegi (Arrua)	2:04:50
43.	Mikel Rubio (Irur)	2:05:20
77.	Ruben Moral (Irur)	2:13:26
133.	Juan Jose Armendariz (Irañeta)	2:22:53
159.	Josetxo Albizu (Irur)	2:26:59
185.	Gorka Arratibel (Etx)	2:30:40
248.	Pablo Gonzalez (Ek)	2:42:57
271.	Aitor Salinas (Etx)	2:52:15

*Oharra: Sailkapen batzuetan ez da korrikalarien jaioterririk aipatzen. Hortaz, sakandarren bat aipatu gabe geratzea geratu daiteke.

Pilota

Irurtzongo 22. Pilota Txapelketa

Asteburuan kategoriazberdin eta partidak jokaturako dira Irurtzunen eta Etxarrenen.

Asteburuko partidak

Maiatzak 9, ostirala

Kimuak (18:00etan, Irurtzunen)

Ardanaz-Migeltorena (Lagunak) / Insausti-Oiarzabal (Hernani) / Albeniz-Urruzola (Añorga) / Uitz-Apaolaza (Hernani) / Orbegozo-Unanue (Añorga) / Esain-Armendariz (Uhart) / Pezo-Fernando (Titin) / Igoa-Mendibe (Ardoi)

Kimuak (18:00etan, Etxarrenen)

De la Fuente-Azpiroz (Irurtzun) / Beloki-Marcos (Zugarralde) / R. de Larramendi-Alberdi (Lapke) / Etxebere-Ballarena (Txaruta) / Olasagasti-Aburuza (Bear Zana) / Martiarena-Laso (Irurtzun) / Pierola-Berruete (San Migel) / Imaz-Imaz (Aldabide)

Maiatzak 10, larunbata

Kimuak (10:30etan, Irurtzunen)

Beloki-Huarte (Huarte) / Leunda-Izagirre (Urretxu) / Iribarria-Zubizarreta (Lapke) / Albarrazin-Erdozia (Gure Pilota) / Zulaika-Soto (Buruzgain) / Migeltorena-Rivas (Lagunak) / Maiza-Rodriguez (Paz Ziganda) / Gainza-Gorostieta (Irurtzun)

Maiatzak 11, igandea

Haurrak (10:00etan, Irurtzunen)

Barriola-Roldan (Ardoi) / X-X Arzoiz-Lizarraga (Irurtzun) / Huarte-Torres (Buruzgain) / Etxeberria-Urruzola (Errenteria) / Ruiz de Larramendi-Gelbentzu (Lapke) / Orbegozo-Oliden (Añorga) / Arizmendi-Insausti (Hernani)

Maiatzak 13, asteartea

Seniorrak (19:15etan, Irurtzunen)

Ezkurdia-Irañeta (Irurtzun) / Iriarte-Landiribar (Buruzgain) / Kina-Urruzola (Usurbil) / Olano-Azanza (Zugarralde)



Iparraldeko sorpresa Irurtzuni

Berria txapelketako final-zortzirenetan, Iparraldeko selekzioak ezustekoa eman zuen eta jokoan zeuden hiru partidetatik bitan nagusitu zitzaion Irurtzuni.

Berria Txapelketa. Final zortzirenak:

IPARRALDE - IRURTZUN:
Kadeteak: Etxegarai-Azarate **22** / Beraza-De la Cruz **17**

Gazteak: Alkasena-Mendi **22** / Zudaire-Mariekurrena **11**

Nagusiak: Bilbao-Agerre **8** - Ongai-Mitxelena **22**

Pilota

Ezkurdia eta Zabaleta Buruz Burukoan

INOIZKO TXAPELKETARIK GAZTEENEAN, 16 PILOTARI LEHIATUKO DIRA

Guztira 16 pilotari lehiatuko dira orain arteko Buruz Buruko txapelketarik gazteenean. Pilotarien batez besteko adina 26,4 urtekoa da. Izar handiak pilotari gazteenekin tartekatuko dira. Tartean bi pilotari sakandar lehiatuko dira: Binakako txapelketan bikote izan ziren Jose Javier Zabaleta etxarrendarra eta Joseba Ezkurdia arbizuarra.

Txapelketa asteburuan hasiko da. Hasierako kanporaketan, ostiralean Joseba Ezkurdia arbizuarren eta Iker Arretxeren arte-

Arantza ateratzera



Ezkurdia eta Zabaleta ez ziren gustura gelditu Binakakoan egindako lanarekin. Orain, Buruz Burukoan, arantza ateratu nahi dute. Ostiralean Ezkurdia Iker Arretxe izango du aurkari. Bi aurrelari, nor baino nor. Ea partida ona egin eta hurrengo asteburuan Retegi Biren kontra aritzeko aukera duen. Bestalde, txapelketan debutatzen duen Untoria errioxarra izanen da Zabaletaren arerioa. Bi atzelarien arteko lehia gogor eta estua espero da. Ea sentsazio onak berreskuratu eta 22 puntuetara heltzen den arakildarra, Jaunarenaren kontra aritzeko.

Buruz Burukoa

Ezkurdia - Arretxe II.a (ostiralean, 22:00etan, Zestoan. ETB1)

Zabaleta-Untoria (igandean, Eibarren, 17:00etan. ETB1)

ko partida jokaturako da, larunbatean Xala-Elezkano II.a eta Merino II.a-Albisu lehiak, eta igandean, Eibarren, Jose Javier Zabaleta etxarrendarrak Untoria errioxarra izango du arerio. Irabazleek Retegi Bi, Barriola, Jaunarena eta Beroiz izanen dituzte zain final zortzirenetan. Final lurren denetan, aldiz, Olaizola II.a, Idoate, Urrutikoetxea eta Martinez de Irujo sartuko dira lehiak.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

GANUZA
SUKALDEAK
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel.: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzas@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

LARRAZA
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

Jose Larraza Legarra
Etxebizitzen administratzailea
Kolegiatu zenbakia: 378

Bizilagunen komunitateak
Etxebizitzen administrazioa

Etxaburua kalea, 1 beheko solairua
31013 Berriozar
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634
Jose.larraza@gmail.com

Areto futbola

Futsalsakana Kopa

Asteburu honetan erabakiko da zein talde eta zein ordenetan sailkatzen diren finalerdietarako

A multzoan Leones del Atlasek 10 puntu ditu, Racing San Migelek 7, Iturmendik eta Etxarriko Gazte-
txiekhirunapuntuetaArbizuko jubeni-
lak ez du punturik. B multzoan, Aralar Mendi 69-k eta Arbizuk zaz-
pinapuntudituzte, Biltokik 3, Auzo-
motojorikek punturik ez eta Bun-
kerrek -6 puntu, azken 2 partideta-
ra ez aurkezteagatik.

4. jardunaldiko emaitzak:

A multzoa:
Racing San Migel **10** / Arbizu jubenilak **2**
Leones del Atlas **9** / Etxarriko Gaztetxie **4**
B multzoa:
Aralar Mendi 69 **3** - Arbizu **3**
Bunker - Auzomotojorik (ez zen jokatu)

5. jardunaldia, azkena

Larunbatean, Uharten
A multzoa:
14:00etan: Racing - Iturmendi
16:00etan: Arbizu jubenilak /
Etxarriko Gaztetxie
Atsedena: Leones del Atlas
B multzoa:
15:00etan: Arbizu / Biltoki
17:00etan: Aralar Mendi 69 -
Auzomotojorik
Atsedena: Bunker

Duatloia



Igor Flores San Juango Duatloiko txapelduna

Javier Borrega 4.a izan zen, Sergio Garcia de Eulate 6.a, Juan Luis Maiza 11.a eta Isidro Asurarbarrena 17.a

Igandean 9. San Juan Duatloia jokat-
tu zen Iruñean. 5,2 km korrikan, 19
km txirrindulan eta 2,2 km korri-
kan osatu behar izan zituzten. 83
triatletek hartu zuten parte, eta San
Juango duatloia inoiz baino sakan-
darragoa izan zen. Izan ere, Igor Flo-
res urdiaindarrak irabazi zuen pro-
ba (58:36), Alberto Diaz (59:14)
minutu pasako alde aterata. Saka-
na Triatloi Taldeko kideek mailabikai-
na eman zuten. Proba irabazteaz
gain, Javier Borrega 4.a izan zen
(59:33), Sergio Garcia de Eulate 6.a
(1:00:06), Juan Luis Maiza 11.a
(1:01:59) eta Isidro Asurarbarrena 17.a
(1:04:24). Zorionak guztiei!

Futbola

Bukatu da liga: Lagun Artea B 6.a, Altsasu 8.a eta Etxarri 15.a

Erregional mailako azken jardun-
aldia jokatu da asteburuan. Lagun
Artea B taldeari 1-3 irabazi zion
Barañaingo Lagunak B-k.
Aldiz, Altsasuri hobeto joan
zitzaizkion gauzak eta 2-1 irabazi
zion Valle de Egües taldeari. Garai-
pen justua izan zen. Hasieratik
kontzentratuta atera ziren altsa-
suarrak. 15. minutuan Javi Fer-
nandezek Altsasuaren markagai-
lua mustu zuen. Atsedenaldiaren
ondoren partidak ildo beretik
jarraitu zuen eta 60. minutuan
atzera ere Javi Fernandezek Egue-
sibarrekoen atea zulatu zuen.
Nahiz eta Eguesibarrekook gertu-
ratu, 2-1eko garaipenarekin des-
peditu zuten altsasuarrak aurtengo
denboraldia.
Bukatzeko, Baztanek 6-3 hartu
zuen menpean Etxarri Aranatz
partida lehiatu eta istilutsuan.
Baztanek mustu zuen markagai-
lua baina Arratibelek berdintzea

lortu zuen. Ondoren Gentza Erdo-
ziak 1-2 aurreratu zuen Etxarri.
Hala ere, Baztanek berdintzea lor-
tu zuen baina Asier Urkiak 2-3
aurreratu zuen Etxarri. Baztanek
hiruna berdintzea lortu zuen eta
hortik aurrera egoera nahasiz-
en, Etxarri bi jokalarik gutxiagorekin
geratu baitzen. Horrela, jokalarik
gehiagoren abantailarekin, Bazta-
nek beste hiru gol sartu zituen eta
6-3 irabazi zion Etxarriri.
Erregional mailako laugarren
multzoko liga Beti Kozkorrek ira-
bazi du (66 puntu). Lekunberriko-
ak preferente mailara igoko dira.
Igoera faserako sailkatu dira San
Jorge eta Amaya. Lagun Artea 6.a
sailkatu da (47 puntu), altsasu 8.a
(41 puntu) eta Etxarri Aranatz 15.a
(27 puntu). Tamalez, gure taldeek
ez dutelortu mailaz igotzea eta kate-
goria beherenean jokatuko dute
hurrengo denboraldian. Orain
Koparen txanda izanen da.

Altsasuko kadeteak igotzeko borrokan



Altsasuko kadeteak Nafarroako 2. Kadeteen mailatik lehen mailara egin dezakete salto, larunbatean Arrotxapearen kontra irabazten badute. Sekulako denboraldia egiten ari dira kadete altsasuarrak. Lehen fasean euren multzoko txapeldunak izan ziren, eta igoera fasean liderrak dira, asteburuan jokatuko den azkeneko jardunaldi erabakigarriaren faltan. Tartari ginda ederra jarriko liokete Arrotxapearen kontra irabazi eta lehen mailara igoko bali-
ra. Partida larunbatean jokatuko da Dantzalekun, 17:00etan, eta zaleen babesa eskatu dute altsasuarrak.

Areto futbola

Play off-ak jokoan: Magna-Marfil

Irurtzungo taldeak Marfil Santa Coloma du aurkari gaur play off-
etako final laurdenetako joaneko
partidan, Anaitasunan, 20:30ean

Asteburu honetan hasiko dira are-
to futboleko lehen mailako titulua
erabakitzeko play off-ak. Bertan
ligan sailkatutako lehen 8 taldeak
lehiatuko dira: Inter Movistar, El
Pozo Murcia, Barcelona, Marfil San-
ta Coloma, Magna Nafarroa Xota,
Montesinos Jumilla, Burela eta Rios
Renovables. Duen aurrekontu umi-
la kontuan hartuta eta harrobian
trebatutako jokalariz beteta, Mag-
narendako meritu handia da play
off-etara sailkatu izana.

Zaleen babesa eskatu dute
Asteburu honetan play off-etako
finaleko joaneko partidak jokatu-



Magnak akordioa sinadu du Bodegon Sarriarekin.

ko dira. Inter Movistarrek Rios
Renovables izango du aurkari, El
Pozok Burela, Barcelonak Jumi-
lla eta Magna Xotak Marfil Santa
Coloma. Irurtzungo taldeak gaur
hartuko du Marfil Santa Coloma,
Anaitasuna pabilioian, 20:30ean.
Imanol Arregi eta bere mutilak
gogor entrenatzen ari dira zita
garrantzitsu honetarako. Zale ber-

Lagun Artea jaitsiera postuetan



Hirugarren mailari eusteko borro-
kan gauzak oso konplikatuak jarri
zaizkio Lakuntzako Lagun Arteari.
Igandean Osasuna B taldea hartu
zuten lakuntzarrek. Ilusioarekin
zelairatu ziren txuriak eta Jokinek
Lagun Artea aurreratu zuen 30.
minutuan, baina pozak gutxi iraun
zuen Isaac Manjonek bi minutueska-
sera berdindu zuelako. Bigarren
zatiko 80. minutuan Jorge Gome-
zek 1-2 aurreratu zuen Osa-
suna, protestaz beteriko jokaldian,
Lagun Arteako zaleuek joko z kan-
poko jokaldia ikusi baitzuten. Lagun
Arteak ezin izan zuen ekidin atze-
ra ere Jorge Gomezek Osasunaren
hirugarren gola sartzea. San Juanek
jarraitzen du 3. maila-
ko lider (85 puntu), partidarik gal-
du gabe. Lagun Artea 17.a da (38

puntu), jaitsiera postuetan. Sailka-
pena oso estu dago, 16.a den Val-
tierranok 39 puntu eta 18.a den Mur-
txantek 36 puntu dituztelako.
Ez jaisteko: Lagunek irabazi eta
Valtierranok ez puntuatu
3. mailari eutsi eta preferente
mailara ez jaisteko, batetik larun-
batean, 17:30ean, ligako azken jar-
dunaldian, Atarrabian 14.a den Beti
Onak (42 puntu) taldearen kontra
irabazi beharko du Lagun Arte-
ak, eta, bestetik, Valtierraok egi-
ten duenaren zain geratu. Lagu-
nek aurrera egiteko Valtierraok
galdu edo berdindu beharko luke,
Valtierranok irabaziz gero, Lagun
Artea 17. postuan sailkatuko litzate-
keelako, jaitsiera postuetan. Jar-
dunaldi oso konplikatuan zorte-
rik onena opa diogu Laguni.

Altsasuko haurrak Nafarroako txapeldunordeak

Altsasuarrak euren multzoan txapeldunak eta Nafarroan bigarrenak izan dira
Haurren lehen mailan lehiatu
diren altsasuarrak bere multzo-
ko txapeldunak izan dira, eta
Nafarroa mailan txapeldunor-
deak. Zorionak!
(Argazkia: www.guaixe.net)

Etxarriko jubenilek Agoitz aurkari

Etxarri Aranazko jubenilak 2.
maila irabazi eta gero, lehen mai-
lara pasatzeko igoera fasea jokat-
zen ari dira. Lehen jardunaldian
bina berdindu zuten Corellano-
ren kontra, asteburuan 3-2 ira-
bazi zion Zizurko Ardoik Etxa-
rriri, eta larunbatean, 17:30ean,
3. jardunaldia jokatuko dute
Agoitzen kontra, Etxarrin.

Futbola

Futbol campusa, udarako aukera

Udako futbol campusean izena emateko epea luzatu du Mank-ek

Mank-eko Kirol Zerbitzuak udako
futbol campusa antolatu du uztai-
lerako. Campusa Uharte Arakilgo
futbol zelaian eskainiko da. Uztai-
laren 14tik 19ra 2002tik 2004ra
bitartean jaiotako neska-mutilak
aritutako dira, eta uztailaren 21etik
26ra 1999tik 2001 urtera bitarte-
an jaiotakoak, goizeko 9:30etik
14:00etara.

MAIATZAREN 30ERA ARTE
Maiatzaren 30era bitartean eman
daiteke izena, Sakanako Mankomu-
nitateko Kirol Zerbitzuan (948 464
866 telefonoa, kirolak@sakana-
mank.com posta elektronikoa edo
www.sakana-mank.com webgunea).
Prezioa: 35 euro partaideko.



Nonerabili

AMAYA TABERNA

IRURTZUN

Menuarekin txupittoa edo kafea doan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisia doan.

LURESU

ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDAIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

URRUTIA HARATEGIA

IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

KIROLDEGIKO TABERNA

ARBIZU

Gosaritarako pintxo+kafea 2'30 €.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



Herri kirolak

Ikasleak herri kirolelara!

193 ikaslek hartu dute parte Sakanako ikastetxe arteko Herri Kirol Topaketan

Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatuta asteazkenean Sakanako Ikastetxeen Arteko 10. Herri Kirol Topaketa jokatu zen Arbizun. Sakanako ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hartu zuten parte, 193 ikaslek guztira. Haiei laguntzen 17 irakasle aritu ziren. Hasieran Kañamarensaiek trontza erakustaldia egin zuten.

Proba konbinatua

Sakanako ikastetxe desberdinetako neska-mutilak nahastuz taldeak osatu zituzten eta eta guztiek herri kirol proba konbinatuetan hartu zuten parte, txingak, zaku lasterketa, koxkolak, giza-plaza eta sokatiran arituz. Harri-garria da neska-mutikoei zein gogo eta emozioarekin aritu ziren, proba ez lehiakorra dela kontuan hartuta.



Neska-mutikoei proba konbinatuko giza-plaza proban.

Andra Marikoak Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketan

Andra Mari ikastolako Andra Mari eta Putterri taldeek Nafarro-

ako Lauko Sokatira Txapelketan parte hartuko dute, kadeteen mailan. Bihar, Jauntsarasan, 18:00etan jokatu dute lehen saioa.

Saskibaloia

CBASK, Final Fourra helburu

Emakumeen haurren mailako CBASK Bodegon Alsasua taldeak 8. Pirinioetako Torneoak Kopa irabazi du. Bihar Nafar Kirol Jolasen haurren mailako Final Fourreko finalerdia jokatu dute Ardoiren kontra

Pozik, urduri eta sekulako ilusioarekin daude Altsasuko Saskibaloia Taldean, CBASK-en. Izan ere, asteburuan 8. Pirinioetako Torneoak Kopan lehiatu ziren CBASK-eko bi talde. Torneoak Jakan jokatu zen, maiatzaren 1etik 3ra bitartean, eta lan bikaina egin zuten altsasuarrek.

Kontentu

Nesken haurren mailako CBASK Bodegon Alsasua taldeko entrenatzaile Gonzalo Ruedak adierazi digunez, asteburu honetan jokatu dute Nafar Kirol Jolasen haurren lehen mailako Final Fourra prestatzeko eman zuten izena Pirinioetako Torneoan. "Oso torneo inportantea da. Kategoria guztiak kontuan hartuta 900-1000 partaide izan ziren, Estatuko talde inportanteak tartean: Elías Zaragoza, Barcelona, Errioxa eta Valentzia-ko taldeak... Sekulako esperientzia izan da, jokalariek, gurasoek eta guztiek oso ongi pasa dugu, giroa bikaina izan da eta eta oso kontentutuz itzuli gara" adierazi du Ruedak.

Nerea Misiego, jokalaria onena

8. Pirinioetako Torneoak Kopan 14

Talde bikaina



Emakumezkoen haurren talde oso polita osatu du Ruedak. "Aurreko urtean hasi ginen lanean, aurre-haur mailan, eta txapeldunordeak izan ziren. Hala ere, ez genuen halako progresiorik espero. Sekulako maila dute. Burlatuko Gabonetako Torneoak irabazi genuen, orain Pirinioetako eta ea asteburuko Final Fourrean zer egiten dugun" dio entrenatzaileak. CBASK Bodegon Sarria emakumeen haur mailako taldekideak: Edurne Ormazabal, Ainhoa Etxaiz, Ainhoa Calleiras, Nerea Misiego, Naroa Facenda, Andrea Claver, Ane Galan, Leire Chamorro, Jaione Saldaña, Eider Zia eta Irune Garisoain. Entrenatzailea: Gonzalo Rueda.

talde lehiatu ziren gizonezkoen kadete mailan eta David Crespok entrenatzen dituen Altsasuko mutilek lan ona egin zuten. 10.ak sailkatu ziren. Emakumezkoen haur mailan 11 talde aritu ziren. Hasieran ligaxkan CBASK finalerdietarako sailkatu zen. Bertan, Zizurko Ardoi 39-31 irabazi zion CBASK-ek. "Hain zuzen ere euren kontra jokatu dugu larunbatean Nafar Kirol Jolasen Final Fourreko finalerdia" azaldu digu Rue-

dak. Eta final handian, CBASK-ek 40-38 irabazi zion Zaragozako Eliosi. "Estatu mailan talde handienetako bat da. Bartzelona irabazte-rik iritsi zen finalera. Ardoi, Mendillorri, Gipuzkoako taldeak eta, jakina, Altsasuko guraso guztiek izugarri animatu ziguten. Neskak oso kontentutuz daude egindakoarekin eta ni ere" nabarmendu du Ruedak. Horretaz gain, CBASK-eko Nerea Misiego torneoak jokalaria onena izendatu zuten.

Igandean Saskibaloia Topaketa Irurtzunen

Mank-ek saskibaloia topaketa antolatu du igandean Irurtzunen, 11:00etan. Sakanako Saskibaloia Topaketetan parte hartu duten taldeetako kideek -Putterri, Beriain, Martinsaski eta Balan-kaleku- eta ekitaldira hurbiltzen diren guztiek parte hartu ahal-ko dute. Denak nahastuta, taldeak osatu dituzte David Crespo koordinatzaileak, Josu Murgiondo eta Fermin Herrero entrenatzaileen laguntzarekin.

Final Fourra

Nafar Kirol Jolasen haurren 1. mailako ligan Aranguren lehen postuan sailkatu da eta CBASK Bodegon Alsasua bigarrenaren. Sailkatutako lehen 4 taldeek titulua erabakitze-ko Final Fourra jokatu dute. Larunbatean, 10:45ean Arrosadia-ko Pabilioian CBASK-ek Ardoi izanen du arerio. Beste finalerdian Aranguren 00 eta Aranguren 01 lehiatuko dira. Talde onenek jokatu dute maiatzaren 17ko finala.

"Ligan jokatu dute 2 partidetan Ardoi menpean hartu dugu eta Pirinioetako Torneoak finalerdian baita, baina oso talde ona da eta Final Fourreko finalerdian edozeinek irabazi dezake" azaldu du Ruedak. Finalera sailkatzen diren taldeek ekainan Pontevedran jokatu dute Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera izan dezakete.

Atletismoa

Ziordiko I. Herri Kroserako izena ematea zabalik

Ekainaren 1ean jokatu da, 12:00etan

Running Ziordia taldeak herri lasterketa antolatu du, lehendabizikoz, Ziordian. Ekainaren 1ean jokatu da Ziordiko I. Herri Krosera, 12:00etan (7,5 km). Aurretik kategoriatxikiko lasterketak jokatu dira. Izena ematea dohain da, aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean, edo egunean bertan, Ziordian.

Botxak

Botxen garaia Irurtzunen

Iratxo Botxa Txapelketarako izena ematea zabalik dago

Botxapetanka antzeko joko tradizionala da. Irurtzunen Iratxo elkarteak da kirol hori sustatzen duena, elkarte-ko botxategian urtero antolatzen dituen txapelketa, ikastaro eta abarren bidez. Maiatzaren bukaeran hasiko da Iratxo Botxa Txapelketa. Txapelketan parte hartu nahi duten taldeek maiatzaren 15a baino lehen eman behar dute izena Pikuxarren edo Iratxon.



Sakandarrak
Biurdanako
irakurketa
publikoan

Gaur, goizeko 8:15etik 14:15era bitartean, Jasone Osororen testuak irakurriko dituzte ikasleek



Iruñeko Biurdana institutuak 15. Euskal Liburuaren Irakurketa Publikoa antolatu du. Ikasle-en artean irakurzaletasuna bulkatu nahi duen ekimenak aurtten Jasone Osoro idazlea izanen du protagonista, haren liburuen pasarteak irakurriko baitira.

Lausakandarrek parte hartuko dute: Marta Fernandez (DBH 4. maila) eta Uxue Etxeberría, Jon Irañeta eta Julen Iriarte (Batxilergoko 1. maila). *Greta* liburuko pasarteak irakurriko ditu aurrenak eta *Korapiloak* liburuko pasarteak, berriz, hirukoteak. Iriarte Satrustegikoa da, beste hiruak irurtzundarrak. irakurritz, hurrenez hurren.

Ikasleez aparte, kirolean, kulturaren eta beste arlotan nabarmendu diren pertsonak ere parte hartzen dute irakurraldian. Murrizketak jasan dituzten eus-kalgintzako sektore ugarietako bat da euskarazko hedabideena etahura ordezkatzuz Bierrik fundazioko kudeatzaile Ainhoa Urretagoiena Arruabarrenak ere parte hartuko du irakurraldian.

Etxarri Aranazko abesbatzaren
udaberriko kontzertua

Igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan

Biatal berezitu izanen ditu etzi Etxarri Aranazko abesbatzak eskainiko duen kontzertuak. Lehenik, Europa ekialdeko eliza-musika eskainiko du abesbatzak. Horretarako, Hungaria, Lituania, Polonia eta Txekiar Errepublikako XX. mendeko konposatzaileen obrak ekarriko dituzte.

Bigarren atalerako, berriz, erlijio kutsurik ez duten makina bat jatorriko kantuen bilduma pres-



Egitaraua	
1. Missa brevis	Zdenek Lukás
I – Kyrie	
II – Gloria	
III – Sanctus	
IV – Benedictus	
V – Agnus Dei	
2. Eli! Eli!	György Deák-Bárdos
3. Gloria patri	Vytautas Miškinis
4. Totus tus	Henryk Mikolaj Córcki
5. Segalariak	Josu Elberdin
6. Dos olas	Alejandro Yagüe
7. A tu lado	J. Busto
8. Mendirik mendi	S. Salaberri
9. Shennandoah	James Erb
10. El mochilon	E. Correaren moldaketa
11. Izar ederrak	Josu Elberdin

tatu du Etxarri Aranazko abesbatzak. AEBko eta Kolonbiako herri-kantuekin batera, Elberdin, Busto eta Salaberri euskal konposatzaileen obrak izanen dira. Baita pasa den udan San Vicente de la Barquerako lehiaketan abesbatzari saria eman zion Alejandro Yagüeren Dos olas ere.

Ikasgeletatik ateratako musika

Asteazkenean, 17:00etan, Altsasuko Zelandi kiroldegian ikasleen Kontzertu Erraldoia izanen da

Aralarko Mikel Doneko eta Alaitz institutuetako 210 ikaslek heldu den asteazkenean Kontzertu Erraldoia eskainiko dute. Sakanako ikastetxeko DBH 1., 3. eta 4. mailetak 170 ikaslek musika ikasgaiari aritu dira kontzertua prestatzen, txirulak lagun. Azken egunetan, laguntza instrumentuekin batera aritzeko atsedenaldietan ere egon dira guztia prestatzen. Gauza bera egin dute Barañaingo Alaitzeko ikasleek, nahiz eta haiek Musika eta Arte Eszenikotako Batxilergo ikasketak egiten ari diren.

Atzo aritu ziren Sakanako

ikasleak Atarrabian, parte hartuko duten bi Kontzertu Erraldoietako aurrenekoan. Iruñerriko emanaldian, Altsasukoan bezala, saxofoi, piano, akordeoi, gitarra eta baxu elektriko, bateria eta ahotsaren laguntza izan zuten ikasle musikariek. Kanta ezagunen moldaketek osatzen dute egitaraua.

Egitaraua	
Have you ever seen the rain	Creedence Clearwater Revival
Misirlou (Pulp Fiction)	Dick Dale
Gitarrajolea	Patxi eta konpainia
All Star	Smash Mouth
Suela de alpargata	Barricada
Video killed the radio star	The Buggles
Min Hau	Katamalo
Ezkotish'ta ragga	Patxi eta konpainia
Sweet child of mine	Guns & Roses
Euri tanta bakoitzean	Betagarri
Arbola	Guk Taldea

Marrazkiak eta maketak
Iturmendin



Auzoan, goiz eta arratsaldean ikusgai

Bibakaikuarren lanak ikusteko aukera izanen da bihar Iturmendiko udaletxean. Ana Larrazak eta Jose Anjel Galartza dira sortzaileak. Aurrenekoaren marrazkiak dagoeneko hila-ren lehenengoan ikusteko aukera izan zen, maiatzaren jasotze egunean. Larrazak kolore asko-

ko irudi abstraktuekin jantzi ditu Auzoko paretak. Sormen lanerako koloretako arkatzak erabili ditu Larrazak. Aurreneko aldia da bere obra erakusten duena eta 20 bat lan erakustera animatu da. Galartzak, bestalde, poliespanez egindako hainbat eraikinen maketak jarriko ditu ikusgai, tartean Iturmendiko plaza eta inguruko etxeak.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

Artea salgai

Bizi garen gizarte honetan, kanti-tateak kalitatea baino garrantzi handiagoa duela argi dago. Azken urteetan globalizazioa dela eta, kontsumitu dezakeguna baino gehiago ekoizten dugu. Merkatal lehiaketaren ondorioz, sortzen diren produktuak denbora laburrenean atera behar dira merkatura, beraz denbora gutxiago erabiltzen dugu hauen sorkuntzan eta gehienetan kalitatea jaitsi egiten da. Bizitzaren arlo guztietan dagoen joera hau, arte mailan ere nabarmentzen da. Zenbat artista berri

sortzen dira urtero? Eta horietako zenbat dira ekoizpen etheen produktu hutsa? Artista baten helburua sortze prozesuak baino, salmenten arrakasta edo ospea bada, zer espero dezakegu? Baina, zein da kalitate gutxiko produktuen salmenten arrakastaren arrazoia? Norena da Justien Bibier, edo beste hainbat produktuen arrakastaren erantzukizuna? Alde batetik, ekoizpen etxeena, baina batez ere kontsumitzaileena. Produktu hauek erabiliko ez bagenu ez lirateke existituko. Beraz, artearen arloan ere beste edozeinetan bezala, kontsumitzen duguna zaindu behar

dugu. Diru-laguntzak ematen dituzten erakundeek ere hobe ulertu behar-ko lukete zein den gure lana. Gehienek, sortu behar dugun lanaren emaitza nahi dute hasieratik. Prozesu artistiko batek nora eramango gaituen ez dugu beti argi, esker-rak hala den eta prozesu honen bidaian gauza berri eta interesgarri asko aurkitu ditzakegun. Erakunde ofizialek hobe egingo luke-te lan, arte departamenduan arlo honekin zerikusia duten pertso-nek lan egingo balute, politikoak izan beharrean. Duela aste bat Bruselan Europar Komunitateak anto-

latutako jaialdi batetara joan nin-tzen, non jendea artera bereganatze-ko asmoarekin, doanik eskaintzen ziren sarrerak. Baldintza hauek aukera ezin hobea eskaintzen zuten arte munduan murgil-durik ez dauden pertsonen dantza garaikidea zer den erakusteko. Antzokira jende kopuru handia hur-bildu zen, baina zein izan zen nere sorpresa, non ikusi nituen languz-tiak kalitate oso gutxiokoak izan ziren. Eszenatokian, teknika lan-dugabea, garapen gabeko kontzep-tuak eta indar gabeko dantzarie-kin topatu nintzen, jaialdi horre-tan aurkeztutako lanak harreman

politikoen bidez aukeratu zirela-ko. Arte politikoa izan daiteke, baina ez litzateke helburu politi-koen menpe ezarri behar. Bestalde, artisten erantzukizuna prozesu artistikoetan beharrezkoa den denbora inbertitzea eta iker-keta sakona egitea da. Arteaz bizi-tzeko gai izan gaitezen, noski ardu-ratu behar garela salmentarekin, bai-na gure helburu nagusia hau bada, gure lanen garrantzia galduko dela dudarik ez dago. Gainera, artea mer-katuaren menpe uzten badugu, Zer gertatuko litzateke komertziala ez den eta hain beharrezkoa den arte-arekin?

Lakuntzan dantzan

Igandean Lakuntzan barna ibili ziren dantzan Elai Alai taldeko 60 bat dantzariak. Euren eguna dantza eginez ospatu zuten dantzari txiki eta helduek. Eta guztia borobiltzeko guztiak bildu zituen bazkarian elkartu ziren.



Literart Olaztin

ñigo Aritza eta Txioika ikastole-tako ikasleek Castillo Suarez eta Alberto Barandiaranen liburuetanoinarritutatsortutakoartelanak osatzen dute *Literart* erakusketa. Literatura eta artea uztartzen dituen erakusketa Altsasun ikusgai izan ondoren hurrengo bi aste-buruetan Olatzagutiako kultur etxean izanen da ikusgai. Bihar eta etzi, 18:00etatik 20:00etara. 17an ordutegi berean eta 18an, 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 19:00etara.



Dantza, txiki

Eguraldiak ez zuen utzi XX. Altsasuko Dantzari Txiki eguna behar bezala ospatzen. Kalejira bertan behera gelditu zen eta dantzari txikiek euren trebetasuna Burundafrentoian erakutsi zuten. Arratsaldean, Urretxuko Lurra, Ibar-rako Alurr eta Altsasuko dantzariak plazan erromerian parte hartu zuten, fanfarre txikiaren doinura dantzatzuz.

Aurreneko kontzertuak Ximona gaztetxean

Memo eta Ukatu gaur, 23:30ean Iturmendin

Iruñeko Memo taldeak punk doinuak ekarriko ditu Iturmendiko gaztetxera. Ibilbide luzea eta lau disko ditu dagoeneko laukote iruindarrak. Ska, punk, rock doinuak egiten dituen Ukatu taldea ere ariko da Iturmendin. 2011ko maiatzean sortu zuten taldea Lekunberri, Leitza eta

Larraungo boskote batek.

Ane Bañasko lakuntzarrarekin seikotea da Ukatu pasa den urte-tik. Txikitan hasi zituen Bañaskok tropeta ikasketak eta dantza taldeko kide baten bidez jakin zuen Ukatun tronpetak jole baten beharra zutela. Ordutik Oderitzen entse- atzen du ostiralero. Bañaskok kon- tatu digunez Euskal Herriko tal- deen bertsioak jotzen dituzte euren emanaldietan. Euren kantupropio-



ak sortzen hasiak dira eta pare bat badituzte. Ametsa noizbait diskoa ateratzea dute. Bitartean, kontzer- tuak eskaintzen ari dira. Makina bat eman dituzte dagoeneko,

Lekunberri aldean batez ere. Udan, herrietako festekin batera, dei gehiago izanen dituzte. Sakanan, Irurtzunen eta Lakuntzan jo dute dagoeneko.



Xaikoren etxeko aurkezpena

Ezinean taldearekin ariko da, larunbatean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean

Duela hilabete eta erdi aurkeztu zuen *Therapy* diskoa Xaiko taldeak, besteak beste Xabier Zelaia eta Hartz Bujanda altsasuarren eta Ziordian bizi diren Aguayiko eta Aguayo anaien proiektu berriak. Trikitixa, punk-a eta ska musikak

elkartzen ditu Xaiko talde berriak. Ongi pasatzeko xedez, gustuko musika jotzera elkartu ziren eta hala egingen dute bihar Olaztin.

Xaikoekin batera, Azpeitiko Ezinean taldea ariko da. Aurten argitaratu duen Berriz diskoa aurkez- tera etorriko da Olaztira. Aurretik beste bi disko dituzte kalean. Hard- core melodikoa eta punk rock musi- ka estiloak lantzen dituzte.

Laukotea

Patricia Badian (kantaria), Migel Anjel Remiro (ahotsa, piano eta musika zuzendaritza), Marcela Alba (aktorea eta dantzaria) eta David Martin (dantzaria).



50eko rocka eta 60ko soul doinuak gaztetxean

Bihar, 23:00etan, Altsasuko gaztetxean

Berlingo de The Allers laukotea Euskal Herrian barna bira egiten ari da eta bihar Altsasun geldialdia egingen dute. Pasa den mendeko 50eko hamarkadako rock and rolla eta hurrengo hamarka- dako soul doinuak jotzen dituzte lauko alemaniarrek. Baxua, bate- ria, gitarra eta ahotsak dantzara- ko makina bat hit eskainiko dituz- te, gaztetxea orduko dantza areto bihurtu arte.

ZURE NEGOZIOA GIDAN IRAGARTZEKO DEITU

**948 56 21 07
618 88 26 27**

Fisioterapia Senco

Javier Beloki
Fisioterapeuta • Osteopata

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Estructural • Bizerala
- Minen errehabilitazioa

655 708 916
Burundabidea 3-1B • Etxarri Aranatz
sendofisioterapia@gmail.com

Erlazioak, dantza bidez azalduak

Domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Iparaldeko Traversé konpainiak, Joana Etcheberri eta Raul Garzia Etcheberriak, *Auzokoak* obra eskainiko du. Battit antzezlea eta Luzia dantzaria dira protagonistak. Nork bere ohiturak ditu eta haiek eragindako borrokaldiek bien arteko harremana gero eta gehiago kakazten ari dira. Tentsio nabarmen handitzen ari denean, ustekabeko batek elkarri laguntzera behartuko ditu. Dantza eta antzerkia, trufa eta umore ukituekin.



Antzerkia antzerkiaren barruan

Altsasuko antzerki amateur zikloa bihar, 20:00etan, abiatuko da Altsasuko lortia kultur gunean

Aurretik ere elkar ezagutzen zuten, bainazerbait handiagoa egin nahi zutelako elkartu ziren Iruñeko Incierto Troupe eta Uharteko Kromelch antzerki taldeak. Ventura Ruiz aktoreak azaldu digunez, meta-antzerkia eta antzerki klasikoak bilatzen ari ziren eta Kenneth Branaghen *En lo más crudo del crudo invierno* (1995) filmarekin topo egin zuten. Antzerki lan baten muntaiaren kontaketa egiten du filmak eta hori antzerkiko moldatzea erabaki zuten. Branaghenak oniritzia ere jaso dute.

Ruizek azaldu digunez, antzerki taldea Hamlet obra prestatzen ari da. Aktoreen kastinga, haien arteko elkarbizitza, entseguen hasiera eta nondik norakoak eta obra aurrera eramateko egin beharreko guztia ikusiko du ikusleak: “normalean erakusten ez dena, antzezpenaren atzean dagoenaren inguruko ikerketa da”.

Komedia ingelesa

Ingalaterrakolanda eremuko herri galdu bateko utzitako eliza batean zuzendari gogotsu batek Hamlet antzeztu nahi du. Horretarako bere



Abonua

Teatreves, Altsasuko antzerki amateur zikloa, hiru antzerki emanaldik osatzen dute. Bakoi-tzerakosarrera 5 eurokoa da eta hiruetarako abonua 12 euro balio ditu.

Fitxa

Aktoreak: Blanki Castillo, Cristina Nagore, Edurne Salaberri, Javier Briansó, Josu Castillo, Joxepe Gil, Txiki Medina eta Ventura Ruiz.

Egokitzapena eta zuzendaritza: Ana Maestrojuan.

Zozketak

Emanaldi bakoitzaren ondoren bi zozketa egingen dira. Batetik, Altsasuko Dendari Elkartek emandako 50 euroko gastu txartela, elkarteko edozein dendetan gastatu ahaliko dena. Eta, bestetik, Xurrut elkarteko tabernek (Arangoa, Gautxori, Koxka, Lurrazpi, Urtzi eta Xume) emandako ardo botilak.

gogo berak dituzten aktoreen premia du. Baina castinga tamalgarria izanen da, entseguak penagarriak, elkarbizitza zaila eta egunak aurre-

raeginahala mustutzedata gero eta gertuago dute. Antzezpenak barre, xamurtasun, malko eta bestelako en artean egingen du aurrera.

Cortinas IZARRA

Pilotajoko zehb., 8
T. 948 467 304

ALTSASU

cortina
stor

S. Ignacio, 14
T. 943 880 918

BEASAIN

Krisi garai latz hauetan denda berri bat ireki duzue Beasainen. Zer dela eta animatu zarete?

Izaran urte asko daramagu aldaketak egiten, modernizatzen, hobekuntzak sartzen eta aholkularitza jasotzen. Ahalegin horri guztiari esker ekoizleekin lan egiten dugu, baita Denda Talde eta etxerako oihalen komertziorako Erosketa Zentralarekin ere. Enpresen kudeaketaz eta antolaketaz arduratzen diren erakundeekin ere lan egiten dugu. Erosketen politikan hobetu dugu, baita marketing-ea, stock-aren kontrolean, bezeroarekiko arretan eta bakarrik irits ezin gintezkeen arlo guztietan ere.

2008an krisia larriagotu zenean, salmentek behera egin zuten. Gure egoera larria izan zen eta bazkideak ginen biak baino ez ginen gelditu. Egoera ezezkorra izan arren erabaki genuen aurrera egitea eta etorkizuna birplanteatzea leku egoki ba-

tean denda berria irekiz. Ekoizle eta denda taldeen arduradun eta komertzialekin kontsulta batzuk egin eta merkatu azterketa egin eta gero, begi onez ikusi genuen Beasainen denda berria irekitzeko aukera: gertutasun, egoera ekonomiko, biztanle kopuru, kompetentziaren maila eta beste faktoreengatik. Zenbait urtetan ideia ondu eta gero, proiektu berria gauzatu dugu Cortina Stor izenarekin.

Denda berriarekin pozik zaudete?

Bai, harrera ona izan dugu eta aurrerantzean ere horrela izatea espero dugu.

Zuen negozioa ezagutarazteko, komunikazio kanpaina bat egin duzue. Norekin?

Guaixe komunikazioarekin. Beraigengana jo genuen gure asmoa zein zen azaltzeko eta haiek komunikazio plangintza bat egin ziguten. Logo berria egin digute, baita dendako kartelak, sobreak, orriak eta etiketak diseinatu eta inprimatu dizkigute. Haien itzulpen zerbitzua ere erabili dugu. Sakanatik kanpo dauden beste hedabideetan publizitatea jartzeaz arduratu dira, eta, buzonea ere egin dute Sakanan eta Goierri. Guretzat oso eroso izan da berriekin zerbitzu hauek guztiak lotzea.

Zuen dendan zer produktu eskaintzen duzue?

Cortina Stor etxerako oihaletan dago espezialdua. Bi lan ildoetan: batetik, dendari izena ematen dion arloan, gortinetan.



Gortina mota guztietan: praktikoenetik teknikoetaraino. Bigarren ildoak da etxerako artikuluak, hala nola: izarak, funda nordikoak, ohazalak eta etxerako oihailezko osagarriak.



Cortina Stor marka berriaren komunikazio kanpainaren egilea:

Guaixe
KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

948 562 107 argi@guaixe.net



Ana Diaz eta Gorka Garcia,
Beasaingo Cortina Storren dendariak

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 10%

euria: 10%

euria: 53%

euria: 40%

euria: 45%

euria: 15%

euria: 10%

Min: 8 Max: 17

Min: 9 Max: 22

Min: 10 Max: 12

Min: 7 Max: 11

Min: 5 Max: 15

Min: 6 Max: 17

Min: 7 Max: 19

: temperatura>>

Max. °C

Min. °C

euria l/m²

Irurtzun

24.7

1

14.3

Etbarri A.

25

4

15

Altsasu

16.6

0.5

21.3

Aralar

21

-1

10.3

: ilargiaren aldia>>

ilbete

ilbehera

ilberri

ilgora

14

21

28

5

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beixeguaixe

Maiatzeko bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.

2. Artazako kanpinean %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera eta Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.

3. Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

4. Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

>>11 galdera

Jose Angel Galartza
Bakaikuko maketagilea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

Elkarrekin bidea egiten

Denon ahotsa behar dugu, egin zaitez Komunitateko kide

GUaiXe.net

1. Nondik datorkizu maketak egiteko zaletasuna?

Belenak egiteko zaletasuna betidanik izan dut. Atarrabiako apaiz bat egon zen hemen eta artista bat zen. Etxean maketak egiten zituen. Hemenez zegoenez, lauirudiz euden eta hori jartzen zen. Baina belenak egiten hasi zen eta nik laguntzen nion. Erretiratu nintzean Olatzagutiako belenistekin ikastaro bat egin nuen eta horrela hasi nintzen. Duela 10 urte inguru.

2. Zein eraikinen maketak egin dituzu?

Bakaikuko elizaren maketa egin dut, udaletxearena, elizaren ondondauden etxeen maketa, Santiago baselizarena, barnetegia, iturriak ere egin ditut, Aralarko Mikel Donea santutegia, baita Xabiergo gaztelua ere. Belenak egiten hasi nintzean esan zidaten Bakaikun etxe asko zeudela egiteko. Haiek orientazioa eman zidaten. Harrigarria da haiek egiten dutena. Eta han hasi nintzen.

3. Iazko Gabonetarako belena egin zenuen?

Bai. Iturmendiko plaza egin nuen: udaletxea, udaletxearen gainean etxe handi bat dago, Jauregia deitzen dioguna, eta gero beste etxe bat lehen taberna eta dena zeukana. Goiko iturria eta garbategia ere egin ditut. Urtero maketa bat egin izan dut.

4. Zergatik egin dituzu eraikin hauen maketak?

Etxe hauek gustatzen zitzaizkidalako eta, gainera, maketak egiteko egokiak zirelako. Kontuan izan behar da irudien neurria etxeak egiteko.

5. Zer material erabiltzen duzu?

Poliespana erabiltzen dut. Elizako teilak plastikozko tubotxo txiki batzuekin egin nituen. 5 edo 4 zentimetroko zatiak moztu, erditik moztu eta gero pasta bat bota behar zaio gainetik eta ondoren margotu. Baina azken urteetan teilak kartoi gogorrenekin egin ditut, goiko azala kendu eta barruan gelditzen den tolesturarekin. Gero pasta eman eta margotu. Lan handia da. Kuterrarekin eta erregailuarekin lan egiten dut. Erregailuarekin poliespana markatzen duzu. Gero margotzeko koloreak prestatu behar dituzu eta probatu.

6. Zenbat denbora behar duzu maketa bat egiteko?

Lehenengo eraikinaren argazkiak egiten ditut. Ondoren semeak argazkiaren bidez ordenagailuan marrazkia ateratzen ditu; ateak, leihoak... eta eskalan jartzen ditut kontuan hartuta irudien tamaina. Iaz apirilean hasi nintzen egiten abenduan jarri nuen belena. Lan asko egin behar da. Balkoiak dira langaien behar duten elementuak.

7. Zer tamaina dute?

Maketak 60 edo 65 cm-ko altuera dute, zabaleran 70 cm inguru eta 80 cm inguruko sakonera. Iturmendiko udaletxeak uste dut 80 cm-ko altuera duela eta sakonerran 40 zentimetro inguru. Guztira lau metro inguru hartzen du. Dena eskalan eginda dago.

8. Non gordetzen dituzu?

Maketak etxean egiten ditut. Han prestatzen ditut eta gero erakusteko unean bere tokian jartzen ditut. Non gordetu da arazoa. Batzuk etxe zahar batean gorde

ditut, apaizaren etxean. Beste batzuk, Mikel Donea santutegia, adibidez, pilotalekuan dagoen biltegi batean gordeta daukat. Udaren aurrean da biltokia eta udaltzainari galdetu nion ea lekuren bat zegoen eta han gordetzeko esan zidan. Batzutan esaten didate oso polita dela eta eramateko esaten diet.

9. Bihar Iturmendin erakusketa egingo duzu.

Gabonetarako Iturmendiko plaza egin nuen ez Iturmendiko batzuk ikustera etorritzen. Kultura arduradunek galdetu zidatenean Iturmendin erakutsinahi nuen. Maiatzaren 8an San Migel eguna izan zen, baina orain larunbatean ospatzen denez bihar izango da erakusketa.

10. Aurten maketa berria egingo duzu?

Denbora asko behar da eta aurten ez dakit egingo dudana. Olaztikobelenzaleek esan zidaten urteren batean ez banuen ezer egiten haiei esateko eta nik nahi dudana belena jarriko dutela hemen Bakaikun. Seguruenik aurten hori egingo dut. Hurrengo urte baterako pentsatuko dut zer egin. Jende gehiago behar da. Ean or bait animatzen den. Eta lan egiteko leku bat ere.

11. Zer behar da maketak egiteko?

Gustatu behar zaizu eta pazientzia handia behar duzu. Hori ezinbestekoa da. Baina denbora pasatzeko modu bat da. Ni etxabera joaten naiz 9:30ean eta erlojua begiratzen dudanean 12:45ak direla ikusten dut. Edo arratsaldean bazkaldu ondoren jaisten naiz eta arratsaldeko zazpiak edo gehiago direla ikusten dudanean esaten dut: nahikoa da, bihar jarraituko dut.